

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Bizkaiko Lurralde Historikoaren  
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de  
Bizkaia**

**2018**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>9</b>
<b>II. IRITZIA.....</b>	<b>11</b>
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	11
II.2 Kontuei buruzko iritzia .....	12
<b>III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRITZIA.....</b>	<b>13</b>
III.1 Aurrekontua, kontu orokorra eta kontabilitatea .....	13
III.2 Kontratazioa .....	13
III.3 Dirulaguntzak.....	17
III.4 Beste batzuk .....	17
<b>IV. FINANTZAREN ANALISIA .....</b>	<b>18</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK .....</b>	<b>21</b>
V.1 Bizkaiko Foru Aldundia.....	21
V.2 Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea .....	26
V.3 Foru enpresa-erakunde publikoak .....	29
V.4 Merkataritzako foru sozietateak .....	30
V.5 Foru fundazioak .....	36
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>39</b>
A.1 Araudi ezargarria .....	39
A.2 Aurrekontuko aldaketak .....	39
A.3 Langileen ordainsariak .....	40
A.3.1 Bizkaiko Foru Aldundia.....	40
A.3.2 Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea .....	40
A.3.3 Enpresa Sektore Publikoa .....	41
A.4 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	42
A.4.1 Erakunde konpromisoak .....	43
A.5 Sarrerak, zerga zordunak eta hornidurak .....	44
A.6 Finantza inbertsioak epe luzera eta aktibo finantzarioak .....	46



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

A.7	Administrazioko kontratazioa .....	47
A.7.1	Bizkaiko Foru Aldundia .....	47
A.7.2	Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea .....	50
A.7.3	Enpresa Sektore Publikoa .....	51
A.8	Dirulaguntzen analisia.....	55
A.8.1	Dirulaguntza izendunak.....	55
A.8.2	Dirulaguntza zuzenak.....	56
A.8.3	Deialdi bidez emandako dirulaguntzak .....	56
A.8.4	Aurreko ekitaldietan emandako dirulaguntzak .....	57
A.9	Bizkaiko Lurralde Historikoaren kontu bateratuak .....	58
<b>ALEGAZIOAK .....</b>		<b>61</b>
<b>ABREVIATURAS .....</b>		<b>105</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>		<b>107</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>		<b>109</b>
II.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	109
II.2	Opinión sobre las Cuentas.....	110
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....</b>		<b>111</b>
III.1	Presupuesto, Cuenta General y Contabilidad.....	111
III.2	Contratación.....	111
III.3	Subvenciones .....	115
III.4	Otros.....	115
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>		<b>116</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES.....</b>		<b>119</b>
V.1	Diputación Foral de Bizkaia .....	119
V.2	Instituto Foral de Asistencia Social .....	124
V.3	Entidades públicas empresariales forales .....	127
V.4	Sociedades mercantiles forales .....	128
V.5	Fundaciones forales.....	134



<b>ANEXOS .....</b>	<b>137</b>
A.1 Normativa aplicable .....	137
A.2 Modificaciones presupuestarias .....	137
A.3 Remuneraciones de personal .....	138
A.3.1 Diputación Foral de Bizkaia.....	138
A.3.2 Instituto Foral de Asistencia Social .....	138
A.3.3 Sector Público Empresarial.....	139
A.4 Transferencias y subvenciones concedidas .....	140
A.4.1 Compromisos institucionales .....	141
A.5 Ingresos, deudores tributarios y provisiones .....	142
A.6 Inversiones financieras a largo plazo y activos financieros .....	144
A.7 Contratación administrativa .....	145
A.7.1 Diputación Foral de Bizkaia.....	145
A.7.2 Instituto Foral de Asistencia Social .....	148
A.7.3 Sector Público Empresarial.....	149
A.8 Análisis de subvenciones.....	153
A.8.1 Subvenciones nominativas.....	153
A.8.2 Subvenciones directas .....	154
A.8.3 Subvenciones concedidas mediante convocatoria .....	154
A.8.4 Subvenciones concedidas en ejercicios anteriores .....	155
A.9 Cuentas consolidadas del Territorio Histórico de Bizkaia .....	156
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>159</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

AKBP	Administrazio-klausula Berezien Plegua.
AKSP	Arrisku-kapitaleko Sozietatea PYME.
AMAS	Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema.
AOFATB	Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren testu bategina, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaile bidez onartutakoa.
Aurrekontuen FA 2018	11/2014 FA, abenduaren 28koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2018. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
BEC	Bilbao Exhibitions Centre, SA.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
BOS	Bilboko Orkestra Sinfonikoa.
CECOBI	Bizkaiko Enpresen Konfederazioa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EEAA	Erakunde autonomoak.
ELA	Estatuko Loteriak eta Apustuak.
Elkarkidetza	Elkarkidetza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea.
ESP	Enpresa Sektore Publikoa.
FA	Foru Araua.
FD	Foru Dekretua.
FDA	Foru Dekretu Arauemailea.
FEEP	Foru enpresa-erakunde publikoa.
GLFE	Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea erakunde autonomoa.
ISKMI	Inbertsioko Sozietate Kudeatzailea, molde itxikoa.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa.







## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Lan Programan erabakitakoari jarraikiz, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak, dirulaguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Foru sektore publikoko kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Nolanahi dela ere, kudeaketan eta barne kontrolean azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

BLHren Kontu Orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen eta Enpresa Sektore Publikoaren kontuek osatzen dute (ikus BLHren Kontu Orokorra [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) helbidean).

Hona hemen Enpresa Sektore publikoa osatzen duten foru enpresa publikoen, foru merkataritzako sozietateen eta foru fundazioen xehapena:

### FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK

ENTITATEA	XEDEA
1. Estatuko Loteria eta Apustuen Bizkaiko Ordezkaritza	Estatuko Loteria eta Apustu Erakunde Nazionalaren Bizkaiko ordezkaritza.
2. Bizkaiko Tutoretza Erakundea	BLHn bizi direnez gero, desgaituak dauden adinekoen tutoretza bere gain hartu eta aldundiak tutoretzapean dituen adingabeen ondasunak administratzeko ardura du.
3. BizkaikOA	Kultur ondarea zabaltzera zuzendutako jardueren kudeaketa, museoen eta azpiegituren kudeaketa osoa eta ondare arkeologikoa zabaltzea.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### FORU MERKATARITZAKO SOZIETATEAK

SOZIETATEA	% PARTAIDETZA	SOZIETATEAREN HELBURUA
1. APARKABISA, Bizkaiko Garraio Gunea AB .....	79,60	Garraio zentroa eta kamioen aparkalekua.
2. Azpiegiturak, SAMP	100	Era guztietako azpiegituren obra publikoak proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea.
3. Bizkaiko Basalan SA.....	100	Basoko lanak eta natura zaintzeko lanak egitea.
4. Beaz SAU. ....	100	Enpresen lehiakortasuna garatu eta sustatzea, Bizkaia lurralde berritzaile, sortzaile, dinamiko eta ekintzaile bihurtzeko.
5. Euskalduna Jauregia (SAU).....	100	Musika eta kongresu jauregia eraikitzea eta kudeatzea.
6. Garbiker MPAB (SAU).....	100	Hondakin solidoak tratatzea.
7. Interbiak Bizkaia, SAMP.....	100	Bide azpiegiturak eraikitzea, zaintzea eta haiei buruzko azterlanak eta proiektuak egitea.
8. Lantik SAMP.....	100	Foru Administrazioako informatika zerbitzuak.
9. Seed Bizkaiko Kapitala SGEITC SA. ....	53,35	Arrisku kapitaleko funtsak eta ondareak kudeatzea.
10. Seed Bizkaiko Kapitala Mikro SCRP SA .....	97,12	Mikro-finantzaketaren garapena.
11. Zugaztel MP SA .....	100	Grabazioa, eskaneatzea eta call center-a.
12. Crowdfunding Bizkaia, Finantzaketa Plataforma Parte-hartzailea, SLU.....	100	Web bidez harremanetan jarri inbertsore eta sustatzaileak parte-hartzailetzako inbertsio-proiektuetarako.
13. Sestao Bai SA. ....	(* ) 60,74	Hirigintzako jarduerak sustatu eta garatzea.
MP Berezko bitartekoa.		
(* ) BFAk bere kapital sozialean parte hartzen du Azpiegiturak SAMPen bitartez.		

#### FORU FUNDAZIOAK

FUNDAZIOA	% PARTAIDETZA	FUNDAZIOAREN HELBURUA
1. Azkue.....	75	Teknologia baliatuz euskara sustatzea eta euskarazko proiektu, ekintza eta material digitalak garatzea.
2. Biscaytik.....	100	Komunikazioaren teknologietan ezagutza sustatzea, hiritarrak online bidez hurbiltzea indartzearen.
3. Bizkaia-Bizkaialde.....	100	Bizkaiko kirolaren sustapen eta garapena, lehentasuna emanez errendimenduko kirolari.
4. Juan Crisóstomo de Arriaga-BOS.....	66,67	Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaritza, mantentze-lana, zaintza eta sustapena.

Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren testu bateginean agindutakoari jarraikiz, BLHren Kontu Orokorrak informazio modura Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren Balantzea eta Galera eta Irabazien Kontua besarkatzen dituen eranskina barne hartu du. Kontu hauek ez dira Txosten honetan fiskalizatu.

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. BFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2018an 114 langileri guztira 5,1 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikuluaen arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZetik salbuetsita, abenduaren 5eko 13/2013 FAren 9. artikuluaen arabera.
2. BFAk eta GUFEk 2012-2013 ekitaldietako erosahaltenaren galeragatik zorra itzultze aldera (Funtzionarioen Akordioaren 70.4 artikuluan eta Langile Lan Kontratudunen Hitzarmenaren 92.4 artikuluan jasotakoa) eta 2018ko Aurrekontuen FAren bigarren xedapen gehigarriko 3 eta 4 atalak aplikatuta, beren langile guztien berariazko osagarria areagotu dute 2018an; gorakada hori lanpostu bakoitzeko ordainsarien % 1,3koa izan da. Esleipen horrek berekin dakar funtzio publikoaren araudian ezarritako berariazko osagarriaren izaera aldatzea. Igoeraren ordainketa, 1,9 milioi euro BFAk eta 553.132 euro GUFEk, 2019ko urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 8/2018 FAren bigarren xedapen gehigarriko 4. atalak baliokidetu zuen.
3. Azpiegiturak SAMPeK txandakako kontratu batetik zetorren aldi baterako lan kontratupeko kontratu bat mugagabe bihurtu du, inongo hautaketa prozesurik gauzatu gabe, enplegu publikorako sarbidean buru egiten duten printzipioak urratuta.
4. BizkaiKOA FEEPeK arautze harmonizatuari lotutako kontratuen prozedura eta publizitate arauak bete behar zituzkeen aretoak eta eraikinak garbitzeko zerbitzuaren lizitazioan, zeinak 410.387 euroren esleipen zenbatekoa izan duen, BEZa barne (ikus 1. espedientea A.7.3n).
5. Honako kontratu hauek publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe gauzatu dira: BizkaiKOA FEEPeK Ondare eta Rekalde aretoetan jendeari harrera egiteko zerbitzua (104.922 euro, BEZa barne); Bizkaiko Basalan SAK erregaiaren hornidura (292.261 euro, BEZa barne); Garbiker MPABk (SAU) pneumatiko eta banden hornidura eta makineria konpontzea (hurrenez hurren 159.950 eta 130.726 euro, BEZa barne); eta Bizkaiko Kapitala SGEITC SAK extranet berriaren bitartez prozesuak automatizatzeko zerbitzuak (75.587 euro, BEZa barne).
6. BOSeK 143.277 euroan gauditu du, BEZa barne, (% 41,61) inongo aldaketarik onartu gabe publizitate zerbitzuko kontratuan aurreikusitako 2018ko urtekoa, zeina 2017an esleitu zen 1,4 milioi euroren zenbatekoan eta 4 urteko egikaritza epearekin.
7. Kontratuaren epea iraungia zegoela, egikaritzen jarraitu dute honako hauek: BFAk esleitutako Urkiola, Gorbeia eta Armiñongo interpretazio zentroetan ingurumen-hezkuntzako jardueren eta bisitariak artatzeko zerbitzua; Aparkabisak esleitutako



outsourcing bidezko hardware kontratua; eta Garbiker MPABren (SAU) ibilgailuen parkera atxikitako ibilgailu, ekipo mugikor eta makineriaren mantentze lan- eta konponketa-zerbitzua; horien kontratua, hurrenez hurren, 2018ko urriaren 17an, 2018ko apirilaren 30ean eta 2016ko abuztuaren 31n iraungi zen. 2018an egikaritzea, hurrenez hurren, 103.666 euro, 67.933 euro eta 618.086 euro izan da, BEZa barne.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 7ra bitarteko paragrafoetan jasotako ez-betetzeak alde batera, BLH osatzen duten erakundeek (ikus I. Sarrera) zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

## **II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen iritzira, Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeek kontuek (ikus I. Sarrera) alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2018ko aurrekontu-ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta abenduaren 31ko finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 AURREKONTUA, KONTU OROKORRA ETA KONTABILITATEA

- Seed Bizkaiko Kapitala Mikro SCRIP SAK, Azkue Fundazioak, Biscaytik Fundazioak eta BOSEk gainditu egin dituzte “Langileen gastuak”, “Kanpoko zerbitzuak” eta “Inbertsio finantzarioak” kontu-sailtako aurrekontuko zuzkidurak, aurrekontuko aldaketarik onartu gabe.
- Sestao Bai SAren epe luzeko zorren bolumenak 2018ko abenduaren 31n, 12,7 milioi euro, gainditu egin du 2018rako aurrekontuen FAn finkatutako muga (12 milioi euro), ez baita lursail bat saltzarekin aurreikusitako amortizazioa gauzatu, lursaila saldu ez zelako.

#### III.2 KONTRATAZIOA

BFAk (ikus A.7.1), GUFEk (ikus A.7.2) eta ESPk (ikus A.7.3) 2018an eta lehenagoko ekitaldietan formalizatutako eta 2018an gauzatutako kontratazio-espedienteen eta erakunde bakoitzaren hirugarrenen gastuaren analisi bidez honako egoera hauek atzeman ditugu:

- BFAk, GUFEk eta ESPk izapidetutako espedienteetan ez da jaso kontratatzailearen profilak jaso behar duen kontratuei buruzko informazio eta dokumentazio guztia: oroitidazki justifikagarria, balorazio txostenak, aktak, kontratuak, etab.).
- BFAk bi obra kontratu esleitu ditu bidezorruak zaharberritzeko hainbat jarduera-eremutan, guztira 1,8 milioi euroren zenbatekoan. Bi prozedura ireki bereiziren bidezko lizitazioak ezeztatu egiten du BFAk kontratuetan loteak ez erabiltzeko emandako justifikazio teknikoa (ikus A.7.1, 1. eta 2. espedienteak).
- Euskalduna Jauregia SAUk 1,5 milioi euroan esleitutako obra-kontratu baten eskaintzak aurkezteko epea 26tik 17 egunetara murriztu da, kontrataziorako barne jarraibideek agintzen duten kontratazio-atalak onartu gabe (ikus A.7.3, 7. espedienteak).
- BFAk 773.829 euroan esleitutako obra-kontratu batean, AKBPan eskatutako sailkapena legokioketena baino handiagoa da, kontratuaren balioa aintzat hartuta (ikus A.7.1, 2. espedienteak).
- Azpiegiturak SAMPeK 2 milioi euroan esleitutako zerbitzu-kontratu baten prezio irizpidea baloratzeko AKBPn baliatutako formulak ez dio puntuazio handiena ematen soilik eskaintza merkeenari (ikus A.7.3, 4. espedienteak).
- Garbiker MPABk (SAU) 8,6 milioi euroan esleitutako bi obra-kontraturen Baldintza Administratibo Berezien Pleguko esleipen-irizpideetan hobekuntzen atal bat agertzen da, baina ez du zehazten zer elementu eta zer baldintzatan aurkez daitezkeen (ikus A.7.3, 10. eta 11. espedienteak).



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Bost kontratu eta zazpi esparru-akordioaren AKBPeK, BFAk hurrenez hurren 13,5 eta 24,4 milioi euroan esleitutakoek, ez dituzte adierazten neurritz kanpo baxuegiak diren eskaintzak bereizteko parametro objektiboak, pleguek adierazten duten moduan (ikus A.7.1, 2, 3, 4, 12, 13, 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 22 espedienteak).
- BizkaiKOA, FEEPeK 410.387 euroan esleitutako zerbitzu-kontratu batean, lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazio orokorraren irekiera eta kalifikazioa eta proposamen teknikoak jasotzen dituen gutun-azalaren irekiera ez du kontratazio-atalak gauzatu, pleguek agintzen duten moduan (ikus A.7.3, 1. espedienteak).
- Ez da egiaztatu Garbiker MPABk (SAU) 8,6 milioi euroan esleitutako bi zerbitzu-kontraturen kontratazio mahaira bertaratu direnik aholkularitza juridiko, tekniko eta ekonomia eta aurrekontuen kontrol egitekoak eskuordetuak dituzten kide guztiak, pleguek agintzen duten moduan (ikus A.7.3, 10 eta 11 espedienteak). Gainera, kontratu horietako baten (8,4 milioi euroan esleitutakoa) kontratazio-mahaiko kideetako bat ez dago AKBPeK zehaztutako kideen artean (ikus A.7.3, 11. espedienteak).
- Ez da eskatu zerbitzu-kontratu batean aurkeztutako eskaintza bakarraren justifikazioa, BFAk 544.029 euroan esleitutakoa, izan ere AKBPrek arabera, neurritz kanpo baxuegi izan liteke (ikus A.7.1, 6. espedienteak, 2. lotea).
- Euskalduna Jauregia SAUren kontratazio-atalak obra-kontratu bat eta zerbitzuetako bi kontratu esleitu ditu guztira 2,9 milioi euroren zenbatekoan, eta Garbiker MPABrenak (SAU) 8,4 milioi euroren zerbitzu-kontratu bat, esleipendunak behin betiko bermea eratu aurretik, baldintzen pleguek agintzen duten moduan (ikus A.7.3; 7, 8, 9 eta 11 espedienteak).
- BFAk gainditu egin du obra-kontratu bat, zerbitzuetako hiru kontratu eta esparru-akordio bat esleitzeko gehieneko epea, hurrenez hurren 1,1, 7,9 eta 1,9 milioi euroan esleitutakoak (ikus A.7.1; 1, 4, 9, 10 eta 20 espedienteak).
- BFAk 5,3 milioi euroan esleitutako kontratazio alorrean errekurtsio bereziaren baitako diren hiru zerbitzu-kontratutan eta Biscaytik Fundazioak 1,4 milioi euroan esleitutako kontratu batean ez da bete kontratua sinatzeko 15 laneguneko gutxieneko epea esleipena jakinarazten denetik aurrera (ikus A.7.1; 4, 5 eta 7. espedienteak eta A.7.3, 25 espedienteak).
- Interbiak Bizkaia SAMPeK 4,5 milioi euroan esleitutako obra kontratu baten formalizazioa esleipena jakinarazi eta 6 hilabetetara egin da; ordea, gehieneko epea 15 lanegunekoa zen (ikus A.7.3; 12. espedienteak).
- Azpiegiturak SAMPeK Uribitarteko eguneko zentroa ustiatu eta mantentze-lanetarako formalizatutako kontratuan jasotako egitaritza epea -6 hilabete alde bien adostasunez erabakitzen den aldirako luzagarria, gehienez 6 urtetarako- ez dator bat Baldintzen Pleguan eta lizitazio iragarkian zehaztutakoarekin, 4 urte 6 urtera arte luzagarria (ikus A.7.3; 5. espedienteak).
- Hilabeteko epea gainditu da BFAk 773.829 euroan esleitutako obra kontratu baten zuinketa egiaztatze aktak berresteko (ikus A.7.1; 2. espedienteak).

- Ez da onartu BFAk 1,8 milioi euroan esleitutako bi obra kontraturen lan-programa (ikus A.7.1; 1 eta 2 espedienteak).
- BFAk 1,6 milioi euroan esleitutako Igorreko hiri hondakinen biltoki kontrolatuaren ingurumen-baldintzak leheneratzeko III. fasearen eraikuntza proiektua oker definitu izanaren ondorioz, aurreikusitako 26 asteko egikaritzea epea 12 astez luzatu da, % 46,15 luzeago (ikus A.7.1, 33. espedienteak).
- 2014an esleitutako garraio publikoa kudeatzeko bost kontratutan (Bizkaibus), BFAk 2018ko abenduan aitortu du ekonomia eta finantzako desoreka gertatu dela gerora, enpresa esleipendunei ezin egotz dakiekeena; egoera horrek 17,4 milioi euroan gehitu du ekitaldiko gastua eta 2024ra arte hitzartutako gastuaren urtekoak 29,4 milioi euroan aldatu. Kontratuak programatu eta egikaritzean egiten diren aldizkako kontrolak hobetzea komeniko litzateke, kontratu-aldaketa arruntak garaiz aktibatze bide emango dutenak, zerbitzuen oreka ekonomiko eta finantzarioa berroneratuko duten ezohiko onespentak egin beharrik izan gabe (ikus A.7.1, 23, 24, 25, 26 eta 27 espedienteak).
- Mamariagako tunelak egokitzeko obra-kontratuaren aldaketa bat onartu da, Interbiak Bizkaia SAMPEk 4,5 milioi euroan esleitutakoa, BEZa barne; horrek aurrekontua 955.361 euroan gehitu du, BEZa barne, eta 4 hilabeteko epea murriztu du, ase beharreko beharrianak alde aurretik oker definitzeagatik, izan ere, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak ez baitira geroko inguruabarren ondorio izan (ikus A.7.3, 12. espedienteak).
- Bilboaldeko metropoliaren hegoaldeko saihebidetako Peñasal-Venta Alta 9. bide-zatiko obrak abiaraztean izandako 6 urteko atzerapenak eragin du 2018an Interbiak Bizkaia SAMPEk obren zuzendaritzarako laguntza kontratuaren aldaketa bat onartu behar izatea; kontratu hori 2008an esleitu zen 7 milioi euroren zenbatekoan, BEZa barne, eta 65 hilabeteko egikaritze epea eman zitzaion, 2014ko urtarrilera arte gutxi gorabehera. Aldaketa honen ondorioz obra zuzendaritzarako aurrekontua 1,2 milioi euroan gehitu da, BEZa barne, eta betetzeko epea 2022ko irailaren 30era arte luzatu da (ikus A.7.3, 36. espedienteak).
- Honako obra-kontratu hauen egikaritze epeak luzatu dira batere luzapenik onartu gabe: Euskalduna Jauregia SAUk 1,5 milioi euroan esleitutakoa, Azpiegiturak SAMPEk 6,3 milioi euroan esleitutakoa eta Interbiak Bizkaia SAMPEk 30 milioi euroan esleitutakoa (ikus A.7.3, 7, 28 eta 30 espedienteak).
- BFAk 5,6 milioi euroan esleitutako obra-kontratu bat eta Inberbiak Bizkaia SAMPEk 72,9 milioi euroan esleitutako hiru obra-kontratu hartzeko zegoen hilabeteko epea gainditu da (ikus A.7.1; 29. espedienteak eta A.7.3; 30, 31 eta 34 (1. lotea) espedienteak).
- Euskalduna Jauregiak 1,5 milioi euroan esleitutako obra-kontratu baten likidazio aurreko harrera-akta ez da sinatu, baldintzen pleguak agintzen duen moduan (ikus A.7.3; 7. espedienteak).
- Amaierako ziurtagiria onesteko epea (3 hilabete, harreratik zenbatzen hasita) gainditu egin da Inberbiak Bizkaia SAMPEk 3,5 milioi euroan esleitu dituen bi obra-kontratutan (ikus A.7.3; 33, 34 (3. lotea) espedienteak).

- Azpiegiturak SAMPeK 858.307 euro gastatu ditu 2018an kontratu iraungien kontzeptuan. Aurreko kontratuaren epemuga iritsi baino lehen hasi ziren kontratu berriaren izapideak egiten (ikus A.7.3).
- BizkaiKOA FEEPeK 204.429 euro BEZa barne gastatu ditu bi zerbitzu-kontraturen AKBPetan aurreikusitako luzapenak gauzatu gabe (ikus A.7.3).
- Biscaytik Fundazioak bi urtez luzatu du 2012an 959.385 euroan esleitutako Ezagutza Zentroko gune guztien garbiketa-zerbitzua. AKBPan jasotako kontratua betetzeko epeak, 8 urtekoak, lizitatu zen unean indarrean zegoen 6 urteko gehieneko epea gainditu du.
- Euskalduna Jauregia SAUk egikaritutako lau zerbitzu-kontratuk 67.695 euroren igoera eragin dute 2018rako zenbatetsitako balioaren gainean (ikus A.7.3).
- Bizkaia-Bizkaialde Fundazioak jarduerak dinamizatzeko, baliabideak erakartzeko eta bere zereginetarako beharrezkoak diren administrazio-lanak egiteko zerbitzuaren lizitazioa egiten du urtero, prozedura negoziatu bidez. 2018ko gastua 69.646 eurorena izan da, BEZa barne. Kontratu hau esleitzea behar-beharrezkoa da Fundazioak bere helburuak betetzeko, ez baitu bere zerbitzura lan egiten duen langilerik. Ez dago justifikaziorik prestazio aldizkako eta aurreikusgarri hau zatikatzeko. Hainbat ekitalditako lizitazio-zenbatekoak pilatu beharko lirатеke, eta aplikatzekoa zaion prozedura erabili.
- Honako gastu hauek homogeneous, aurreikusgarriak eta bakoitza hornitzaile batekin kontraturikoak dira; honenbestez, lehia bideratu behar zatekeen horiek kontratatzean:

		Euroak milakotan (BEZa barne)
ENTITATEA	XEDEA	ZENBATEKOA
BFA	Hainbat sailtako itzulpenak.....	62
	Baso-igel jauzkariaren eta apo lasterkariaren populazioari jarraipena egitea.....	37
	Katalogoko espezie mehatxatuen germoplasma jaso eta landareak ekoiztea.....	42
BiscayTIK Fundazioa	Telefono-zerbitzua.....	55





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### **III.3 DIRULAGUNTZAK**

- BFAk toki entitateei lau dirulaguntza eman dizkie zuzenean, guztira 1,7 milioi euroren zenbatekoan, kiroltako azpiegiturak finantzatzeko. Komenigarria litzateke, dirulaguntza lerroak deitzea, jarduera hauek egin ditzaketen erakunde guztiek laguntza hauetarako irispidea izan dezaten (ikus A.8.2)..

### **III.4 BESTE BATZUK**

- Bizkaiko Tutoretza Institutuak eta BizkaiKOA FEEPEk enpresa-erakunde publikoaren izaera juridikoa dute. Gauzatzen duten jarduera kontuan hartuta, eta bi erakundeetako batek ere merkatuko baldintzetan jarduten ez duenez gero, komenigarria litzateke beren izaera juridikoa egokitzea benetako jardun-baldintzetara.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

BFAk 2017 eta 2018ko ekitaldietan kitatutako magnitude nagusiak honako hauek dira:

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Euroak milakotan		
	2018	2017	BARIAZIOA 2018/2017
<b>Sarrera arruntak</b>	<b>8.030.044</b>	<b>7.828.316</b>	<b>% 2,58</b>
Zerga zuzenak eta zeharkakoak .....	7.759.824	7.388.686	
Tasak eta bestelako sarrerak .....	184.697	205.221	
Transferentzia arruntak .....	83.964	233.885	
Ondare-sarrerak .....	1.559	524	
<b>Erakunde konpromisoak</b>	<b>(6.445.904)</b>	<b>(6.401.784)</b>	<b>% 0,69</b>
(Estatuari kupoa).....	(479.014)	(564.064)	
(Eusko Jaurlaritzari ekarpena).....	(5.077.418)	(5.001.612)	
(Udalei ekarpena).....	(889.472)	(836.108)	
<b>Sarrera arrunt garbiak</b>	<b>1.584.140</b>	<b>1.426.532</b>	<b>% 11,05</b>
<b>Gastu arruntak</b>	<b>(1.132.646)</b>	<b>(1.114.168)</b>	<b>% 1,66</b>
(Langile gastuak).....	(201.061)	(194.001)	
(Ondasun arruntan erosketa eta zerbitzuak).....	(400.345)	(428.413)	
(Finantza gastuak).....	(25.496)	(27.381)	
(Transferentzia arrunt garbiak) .....	(505.744)	(464.373)	
<b>ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)</b>	<b>451.494</b>	<b>312.364</b>	<b>% 44,54</b>
<b>KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA (2)</b>	<b>(175.578)</b>	<b>(154.846)</b>	
Inbertsio errealean besterentzea .....	1.390	444	
Kapital transferentziek eragindako sarrerak.....	6.112	5.035	
(Inbertsio errealean gastuak).....	(108.863)	(60.471)	
(Kapital transferentziek eragindako gastuak).....	(74.217)	(99.854)	
<b>FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)</b>	<b>(104.935)</b>	<b>(102.401)</b>	
Finantza aktiboen bariazio garbia .....	(104.935)	(102.401)	
Finantza pasiboen bariazio garbia .....	-	-	
<b>EKITALDI ARRUNTAREN EMAITZA (1+2+3)</b>	<b>170.981</b>	<b>55.117</b>	
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA (4)</b>	<b>(27.426)</b>	<b>(560.313)</b>	
<b>HORNIDUREN BARIAZIOA (5)</b>	<b>(88.649)</b>	<b>424.458</b>	
<b>BESTELAKO DOIKETAK (6)</b>	<b>845</b>	<b>(7.166)</b>	
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA (1+2+3+4+5+6)</b>	<b>55.751</b>	<b>(87.904)</b>	
<b>EMAITZA METATUA 12.31-N</b>	<b>32.643</b>	<b>(23.108)</b>	

## ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

2018ko ekitaldi itxierako likidazioaren arabera, eragiketa arruntek eragindako emaitza aurreko ekitaldian eskuratutakoa baino 139,1 milioi txikiagoa da (% 44,54). Hona hemen bariazio adierazgarrienak:

- Sarrera arruntan kontzeptuan kitatutako eskubideek 201,7 milioi euro egin dute gora (% 2,58), igo egin direlako 371,1 milioi euro zerga zuzen eta zeharkakoak eta milioi bat euro ondare sarrerak; eta 20,5 eta 149,9 milioi euro behera egin dutelako tasa eta bestelako sarrerek eta transferentzia arruntek, hurrenez hurren.
- Erakunde konpromisoek eragindako gastua 44,1 milioi euroan gehitu da (% 0,69), itunpeko zergen diru-bilketa % 3,19 igo delako.
- Gastu arruntek 18,5 milioi euro egin dute gora (% 1,66), gora egin dutelako 7,1 eta 41,4 milioi euro langile gastuek eta erakunde konpromisorik gabeko transferentzia arruntek, hurrenez hurren, eta 28,1 milioi euro ondasun eta zerbitzuen kontratazioan (-% 6,55) murriztu delako Gerediaga-Elorrio autobideko gastuen gaineko irizpide aldaketagatik, zeinak inbertsio erreal modura erregistratu baitira. Kontzeptu honen izenean erregistratutako zenbatekoa 2017an eta 2018an, hurrenez hurren, 40,9 eta 41,6 milioi euro izan da. Irizpide aldaketarik egon ez balitz, ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioko gastuek 13,5 milioi euro egingo zuketean gora (% 3,15).

## KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA

Emaitza negatiboa 20,7 milioi euro gehitu da, 47,4 milioi euro igo delako egiazko inbertsioetan gastu garbia eta 26,7 milioi euro jaitsi delako kapital transferentzietako gastu garbia. Gerediaga-Elorria autobideko gastuen erregistroan irizpide aldaketarik izan ez balitz, inbertsio errealeko gastu garbia 5,8 milioi euro gehituko zatekeen.

## FINANTZA ERAGIKETEN SALDOA

2018ko ekitaldiko saldo negatiboak 2,5 milioi euroan gaintu du aurreko ekitaldikoa, nagusiki gehitu egin direlako toki entitateei emandako epe luzeko maileguak eta eutsi egin zaiolako aurrekontuko zorpetzeari.

## AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA

2018ko aurrekontu emaitza doitu, 55,8 milioi euro, aurreko ekitaldikoa baino 143,7 milioi euro handiagoa izan da, zeina 87,9 milioi euro negatiboa izan baitzen. Hona hemen bariazio esanguratsuenak:

- Ekitaldi arruntaren emaitza 115,9 milioi euroan gehitu da.
- Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboa 532,9 milioi euro jaitsi da.
- 2018an kaudimen-gabeziatarako eta erakunde konpromisoetarako zuzkiduraren bariazioa 2017koa baino 513,1 milioi euro txikiagoa izan da.



## ZORPETZEA

2018ko ekitaldian BFAk beste zorpetze bat baliatu du 154,2 milioi euroren zenbatekoduna. BFAk 2018ko abenduaren 31n zuen zor bizia ez da aldatu. ESP barne hartzen badugu, 2018an zorpetzeak % 40,8 egin du behera (% 1,92).

	Euroak milakotan	
	2018	2017
BFAren aurrekontuko zorpetzea .....	1.207.456	1.207.456
Merkataritzako foru sozietateen zorpetzea .....	876.968	917.727
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.084.424</b>	<b>2.125.183</b>

## ONDORIOA

Apirilaren 27ko 2/2020 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, aurrekontuan oreka edo egiturazko superabit egoera modura eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura ulertzen direnak, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzairen eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Eskubide kitatuen egikaritza aurrekontu egindako baino 87 milioi handiagoa izateak eta gastuaren egikaritza aurrekontu egindakoa baino 83,9 milioi euro txikiagoa izateak eragin du aurrekontu arruntaren emaitza 170,9 milioi euro izatea.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

#### A) 2018-KO INDARREKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITAT.	DIRU-BIL. LIKIDOA	KOB.R. GABEA
	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			
1.- Zerga zuzenak .....	3.598.700	267.171	3.865.871	3.868.977	3.810.025	58.952
2.- Zeharkako zergak .....	3.824.117	-	3.824.117	3.890.847	3.723.231	167.616
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	164.139	51	164.190	184.697	125.468	59.229
4.- Transferentzia arruntak .....	62.231	2.809	65.040	83.964	80.844	3.120
5.- Ondare sarrerak .....	544	173	717	1.559	1.558	1
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....	900	888	1.788	1.390	1.390	-
7.- Kapitalezko transferentziak .....	7.590	115	7.705	6.112	6.095	17
8.- Finantza aktiboen aldak .....	800	21.205	22.005	934	934	-
9.- Finantza pasiboen aldak .....	154.186	-	154.186	154.186	154.186	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.813.207</b>	<b>292.412</b>	<b>8.105.619</b>	<b>8.192.666</b>	<b>7.903.731</b>	<b>288.935</b>

GASTUAK	AURREIKUSPENA			OBLIG. KITAT.	ORDAINK. LIKIDOA	ORDAIN. GABEA
	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			
1.- Langileen ordainsariak .....	203.179	283	203.462	201.061	197.813	3.248
2.- Gastu arruntak .....	458.785	(47.734)	411.051	400.345	328.036	72.309
3.- Finantza gastuak .....	48.019	(14.000)	34.019	25.496	25.496	-
4.- Transferentzia arruntak .....	6.687.507	299.747	6.987.254	6.951.648	6.838.490	113.158
5.- Ordainketa osoaren kreditu funtsa ..	2.021	(1.053)	968	-	-	-
6.- Inbertsio errealak .....	71.841	45.742	117.583	108.863	87.098	21.765
7.- Kapitalezko transferentziak .....	81.678	8.255	89.933	74.217	59.234	14.983
8.- Finantza aktiboen aldak .....	105.991	1.172	107.163	105.869	105.869	-
9.- Finantza pasiboen aldak .....	154.186	-	154.186	154.186	154.186	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.813.207</b>	<b>292.412</b>	<b>8.105.619</b>	<b>8.021.685</b>	<b>7.796.222</b>	<b>225.463</b>

#### B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2018 Euroak milakotan

	HASIERAKO	KITATUTAKO	(KOB.RAN.)	AZKEN	EMAITZA/
	ZORRA	ESKUBIDE/OBLIG.	ORDAINK	ZORRA	BAJAK
Zordunak .....	1.645.365	1.617.939	186.830	1.431.109	(27.426)
Hartzekodunak .....	166.819	166.819	159.580	7.239	-
					<b>(27.426)</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

C. DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA, 2018		Euroak milakotan
Eskubide kitatuak .....		8.192.666
- Obligazio kitatuak .....		(8.021.685)
<b>EKITALDI ARRUNTAREN EMAITZA (1)</b>		<b>170.981</b>
<b>EKITALDI ITXIEN BARIAZIOA (2)</b>		<b>(27.426)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA (1+2)</b>		<b>143.555</b>
Finantzaren doiketa .....		(57.309)
Itunpeko zergen kobrantzaren doiketa .....		(31.340)
Inbertsioen Europako Bankuaren atxikitako maileguren finantzaketagatik doiketa.....		6.675
Udalkutxa automatikoki gehitzeagatik doiketa .....		(3.054)
Udalek AMASen parte hartzeagatik doiketa .....		544
AMAS automatikoki gehitzeagatik doiketa.....		(3.320)
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA 2018</b>		<b>55.751</b>

D. METATUTAKO EMAITZA 2018.12.31N		Euroak milakotan
2017ko ekitaldiaren emaitza bategina .....		(23.108)
2018ko ekitaldiaren emaitza .....		55.751
<b>2018KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA</b>		<b>32.643</b>

E. 2018-KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA		Euroak milakotan
Kobratzeko dauden eskubideak .....		1.720.044
- Ordaintzeke dauden obligazioak. ....		(232.702)
Finantzaren doiketa .....		(1.245.151)
Itunpeko zergen kobrantzaren doiketa .....		(333.984)
Bestelako doiketak .....		(21.411)
Diruzaintza .....		145.847
<b>EMAITZA BATEGINA</b>		<b>32.643</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

F. DIRUZAINZA GELDIKINA 2018.12.31-N	Euroak milakotan
	31.12.2018
Aurrekontuko diruzaintzako funts likidoak .....	145.847
Kobratzeko dauden saldoak.....	1.720.044
Ordaintzeko dauden saldoak .....	(232.702)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GORDINA</b>	<b>1.633.189</b>
Finantzaren doiketa .....	(1.245.151)
Itunpeko zergen kontzeptuko doiketa .....	-
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GARBIA</b>	<b>388.038</b>
Diru-bilketaren aldizkakotzea.....	(283.350)
Ordainketa aldizkakotzea.....	5.978
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GARBI LIKIDOA</b>	<b>110.666</b>
Aurrekontuen FAra txertatzea.....	(20.497)
Udalen partaidetza AMASen.....	(914)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN GARBI LIKIDO ERABILGARRIA</b>	<b>89.255</b>

G. DIRUZAINZA KONTUA 2018.12.31-N	Euroak milakotan
Aurrekontuko diruzaintza 17.12.31n .....	11.088
Aurrekontuko kobrantzak.....	10.889.857
- Aurrekontuko ordainketak.....	(10.755.098)
Aurrekontuko diruzaintza 18.12.31n (A).....	145.847
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 17.12.31n.....	332.779
Aurrekontuz kanpoko kobrantzak.....	13.288.012
- Aurrekontuz kanpoko kobrantzak .....	(13.310.408)
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 18.12.31n (B).....	310.383
<b>DIRUZAINZA ERABILGARRIA GUZTIRA (A+B)</b>	<b>456.230</b>
<b>DIRUZAINZA EZ ERABILGAR. FINANTZEN EUROPAKO BANKUAN</b>	<b>580</b>

H. ZORRAREN EGOERA	Euroak milakotan
<b>AURREKONTUAREN ZORPETZEA 2018-12-31-N</b>	<b>1.207.456</b>
<b>2018.12.31-N EMANDAKO ABALAK</b>	<b>192.033</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

I. GEROKO EKITALDIEN KONTURA HARTUTAKO GASTU KONPROMISOAK						Euroak milakotan	
SAILA	2019	2020	2021	2022	GAINERAKOA	SAILA GUZTIRA	
<b>Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala</b>							
Baimendua .....	27.882	14.537	15.565	318	-	58.302	
Erabilia.....	21.159	14.506	15.406	318	-	51.389	
<b>Gizarte Ekintza</b>							
Baimendua .....	235.098	89.494	55.491	53.452	857.479	1.291.014	
Erabilia.....	3.016	1.310	76	-	-	4.402	
<b>Euskara eta Kultura</b>							
Baimendua .....	4.130	1.351	232	-	-	5.713	
Erabilia.....	2.431	187	188	-	-	2.806	
<b>Ogasuna eta Finantzak</b>							
Baimendua .....	2.399	125	72	-	-	2.596	
Erabilia.....	247	99	72	-	-	418	
<b>Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa</b>							
Baimendua .....	90.362	86.529	88.713	91.084	181.702	538.390	
Erabilia.....	1.035	91	-	-	-	1.126	
<b>Herri Admin. eta Erakundearteko Harrem.</b>							
Baimendua .....	8.603	401	172	-	-	9.176	
Erabilia.....	7.979	230	172	-	-	8.381	
<b>Ekonomia eta Lurralde garapena</b>							
Baimendua .....	208.895	161.729	127.329	121.215	1.350.434	1.969.602	
Erabilia.....	135.170	109.877	103.990	100.607	1.264.725	1.714.369	
<b>Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna</b>							
Baimendua .....	17.035	2.229	3	-	-	19.267	
Erabilia.....	11.702	1.555	3	-	-	13.260	
<b>BAIMENDUA GUZTIRA</b>	<b>594.404</b>	<b>356.395</b>	<b>287.577</b>	<b>266.069</b>	<b>2.389.615</b>	<b>3.894.060</b>	
<b>ERABILIA GUZTIRA</b>	<b>182.739</b>	<b>127.855</b>	<b>119.907</b>	<b>100.925</b>	<b>1.264.725</b>	<b>1.796.151</b>	

OHARRA: Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzko finantza planean, BFAk 2019tik 2027ra bitarteko urteetan 291 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusten da, urte horietako BFAren Aurrekontu Orokorretan kontsignatuko direnak, bakoitzari egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

J. EGOERAREN BALANTZEA 2018KO ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	2018	2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>1.883.186</b>	<b>1.711.527</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>659.050</b>	<b>432.060</b>
Ibilgetu ukiezina.....	-	-	Ondarea .....	202.112	202.112
Ibilgetu materiala.....	659.074	560.325	Sortutako ondarea.....	444.662	216.449
Taldeko erak. e/luz. fin.inb.....	1.154.382	1.082.857	Emaizt. egozt. bste ondare gehik.batz..	12.276	13.499
Epe luzeko finantza inberts. ....	69.730	68.345			
			<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>1.427.158</b>	<b>1.361.020</b>
			Epe luzeko hornidurak .....	339.090	307.750
			Epe luzeko zorrak .....	1.088.068	1.053.270
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>931.638</b>	<b>799.610</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>728.616</b>	<b>718.057</b>
Kudeaketa eragiketeng. zord. ....	409.706	391.721	Obligaz. eta bst. baloreak .....	-	-
Kobratzeko beste kontu batzuk ....	982	992	Kreditu erakundeekiko zorrak .....	119.388	209.186
Administrazio publikoak.....	-	-	Beste zor batzuk .....	269.767	227.756
Bst. erak. baliab. zordunak.....	61.416	59.605	Kudeaketa eragik. hartzekod. ....	235.384	169.658
Finan. inberts. epe labur.....	2.839	2.951	Ordaintzeko bst. kontu batz.....	30.254	38.264
Bst. aktibo baliokide batzuk .....	580	580	Administrazio publikoak.....	5.010	4.765
Diruzaintza .....	456.115	343.761	Bst.erak.publ.batz adm.hartzek.....	68.813	68.428
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>2.814.824</b>	<b>2.511.137</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZT.</b>	<b>2.814.824</b>	<b>2.511.137</b>

K. 2018 eta 2017-KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	2018	2017
Zerga sarrerak.....	7.789.717	7.493.841
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	91.299	239.905
Salmenta garbiak eta zerbitzu egitea.....	63.621	66.320
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	37.026	52.424
Hornidura gehiegizkoak.....	-	340.565
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>7.981.663</b>	<b>8.193.055</b>
Langileria-gastuak .....	(201.306)	(194.240)
Emandako transferentzia eta dirulaguntzak.....	(7.059.185)	(6.968.692)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....	(441.269)	(463.350)
Ibilgetua amortizatzea.....	(17.020)	(13.962)
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(7.718.780)</b>	<b>(7.640.244)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>262.883</b>	<b>552.811</b>
Balioaren narriadura eta ibilgetu ez finantz. eta salgai dauden aktib. bestereng. emait.....	917	2.209
Arruntak ez diren beste partida batzuk .....	1.529	(423)
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>265.329</b>	<b>554.597</b>
Sarrera finantzarioak.....	53.837	56.764
Gastu finantzarioak.....	(25.339)	(27.509)
Balioaren narriadura, bajak eta taldeko entitateen finantza aktiboen besterentzeak .....	(34.741)	(49.678)
Kaudimen-gabeziengatik balio narriadura edo narriaduraren itzulketa .....	(57.308)	83.894
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(63.551)</b>	<b>63.471</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>201.778</b>	<b>618.068</b>



## V.2 GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA

### A. 2018KO AURREKONTU ARRUNTAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITAT.	DIRU-BIL. LIKIDOA	KOB.R. GABEA
	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	86	-	86	339	339	-
4.- Transferentzia arruntak .....	103.484	7.967	111.451	109.160	108.160	1.000
5.- Ondare sarrerak .....	28	-	28	5	5	-
7.- Kapitalezko transferentziak .....	2.316	-	2.316	2.316	2.316	-
8.- Finantza aktiboen aldak. ....	350	-	350	141	141	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>106.264</b>	<b>7.967</b>	<b>114.231</b>	<b>111.961</b>	<b>110.961</b>	<b>1.000</b>

GASTUAK	AURREIKUSPENA			OBLIG. KITAT.	ORDAINK. LIKIDOA	ORDAIN. GABEA
	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			
1.- Langileen ordainsariak .....	60.900	5.190	66.090	63.398	60.681	2.717
2.- Gastu arruntak .....	42.521	2.030	44.551	42.664	38.068	4.596
4.- Transferentzia arruntak .....	177	747	924	873	872	1
6.- Inbertsio errealak .....	2.226	(42)	2.184	1.927	1.250	677
7.- Kapitalezko transferentziak .....	90	42	132	132	27	105
8.- Finantza aktiboen aldak. ....	350	-	350	106	106	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>106.264</b>	<b>7.967</b>	<b>114.231</b>	<b>109.100</b>	<b>101.004</b>	<b>8.096</b>

### B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2018

Euroak milakotan

	HASIERAKO	ESKUBIDE/OBLIGAZIO	(KOB.R.)	AZKEN	EMAITZA/
	ZORRA	KITATUAK	ORDAINK.	ZORRA	BAJAK
Zordunak .....	3.104	3.104	3.104	-	-
Hartzekodunak .....	8.940	8.940	8.885	55	-
					-

### C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2018

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak .....	111.961
- Obligazio kitatuak .....	(109.100)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>2.861</b>
<b>EKITALDI ITXIEN BARIAZIOA</b>	<b>-</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>2.861</b>

### D. METATUTAKO EMAITZA 2018.12.31N

Euroak milakotan

2017ko ekitaldiaren emaitza bategina .....	747
2018ko emaitza .....	2.861
<b>2018KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA</b>	<b>3.608</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

E. 2018KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA		Euroak milakotan
Kobratzeko dauden eskubideak .....		1.000
- Ordaintzeke dauden obligazioak .....		(8.151)
Aurrekontuko diruzaintza .....		10.759
<b>EMAITZA BATEGINA</b>		<b>3.608</b>

F. DIRUZAINZA KONTUA 2018.12.31N		Euroak milakotan
Aurrekontuko diruzaintza 17.12.31n .....		6.583
Aurrekontuko kobrantzak .....		116.971
- Aurrekontuko ordainketak .....		(112.795)
Aurrekontuko diruzaintza 2018.12.31n (A) .....		10.759
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2017.12.31n .....		2.068
Aurrekontuz kanpoko kobrantzak .....		38.722
- Aurrekontuz kanpoko kobrantzak .....		(38.345)
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2018.12.31n (B) .....		2.445
<b>DIRUZAINZA ERABILGARRIA GUZTIRA (A+B)</b>		<b>13.204</b>

G. GEROKO EKITALDIEN KONTURA HARTUTAKO GASTU KONPROMISOAK					Euroak milakotan
	2019	2020	2021	GAINERAKOA	GUZTIRA
<b>BAIMENDUA GUZTIRA</b>	22.265	46	46	15	22.372
<b>ERABILIA GUZTIRA</b>	1.322	-	-	-	1.322

H. EGOERAREN BALANTZEA 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N						Euroak milakotan
AKTIBOA	2018	2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018	2017	
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>37.730</b>	<b>37.891</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>41.719</b>	<b>39.053</b>	
Ibilgetu materiala .....	37.730	37.891	Ondarea .....	14.077	14.077	
			Sortutako ondarea .....	(6.446)	(9.714)	
			Ondar. bst. igoerak, emaitz. egozteko .....	34.088	34.690	
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>14.825</b>	<b>12.410</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>10.836</b>	<b>11.248</b>	
Zordunak eta kobratz. beste knt. b. ...	1.000	3.104	Epe motzeko zorrak .....	15	16	
Finantza inbertsioak epe lab. ....	621	655	Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz. ....	10.821	11.232	
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok. ....	13.204	8.651				
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>52.555</b>	<b>50.301</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>52.555</b>	<b>50.301</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

I. 2018 ETA 2017KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak milakotan	
	2018	2017
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak .....	112.078	102.045
Salmenta garbiak eta zerbitzu egitea .....	51	54
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b. ....	68	24
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>112.197</b>	<b>102.123</b>
Langileria-gastuak .....	(63.423)	(60.494)
Emandako transferentzia eta dirulaguntzak .....	(1.004)	(224)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....	(43.591)	(38.238)
Ibilgetua amortizatzea .....	(1.137)	(1.153)
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(109.155)</b>	<b>(100.109)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>3.042</b>	<b>2.014</b>
Balioaren narriadura eta ibilgetu ez finantz. eta aktib. besterenganatzeag. emaitza .....	-	-
Arruntak ez diren beste partida batzuk .....	225	186
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>3.267</b>	<b>2.200</b>
Sarrera finantzarioak .....	-	-
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>3.267</b>	<b>2.200</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### V.3 FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK

#### A. EGOERAREN BALANTZEAK 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ELA		TUTORETZA INSTITUTUA		BizkaiKOA	
	2018	2017	2018	2017	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>1.752</b>	<b>1.800</b>	<b>28</b>	<b>101</b>	<b>16.820</b>	<b>17.549</b>
Ibilgetu ukiezina.....	1	3	5	34	51	46
Ibilgetu materiala.....	1.751	1.797	23	67	16.769	17.503
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>368</b>	<b>333</b>	<b>364</b>	<b>423</b>	<b>687</b>	<b>832</b>
Izakinak.....	-	-	15	15	-	-
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko bst. kontu b ...	136	122	123	73	390	380
Epe motzeko hornidurak.....	-	-	-	-	1	-
Aldizkatzeak epe motzera.....	2	2	-	-	8	10
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	230	209	226	335	288	442
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>2.120</b>	<b>2.133</b>	<b>392</b>	<b>524</b>	<b>17.507</b>	<b>18.381</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>1.902</b>	<b>1.947</b>	<b>29</b>	<b>101</b>	<b>16.821</b>	<b>17.550</b>
Eskrituran jasotako kapitala.....	301	301	-	-	-	-
Erreserbak.....	52	52	-	-	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	-	190	2.733	2.565	4.570	4.370
Aurreko ekitaldien emaitza.....	-	(285)	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....	(296)	(200)	(2.733)	(2.565)	(4.570)	(4.370)
Funts propioak	57	58	-	-	-	-
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak.....	1.845	1.889	29	101	16.821	17.550
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>41</b>	<b>41</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
EPE LUZEKO HORNIDURAK.....	41	41	-	-	-	-
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>177</b>	<b>145</b>	<b>363</b>	<b>423</b>	<b>686</b>	<b>831</b>
Epe motzeko zorrak.....	5	5	6	6	198	235
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/motz. ....	-	-	-	-	1	-
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b. ....	172	140	357	417	487	596
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>2.120</b>	<b>2.133</b>	<b>392</b>	<b>524</b>	<b>17.507</b>	<b>18.381</b>

#### B. 2018 ETA 2017-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	ELA		TUTORETZA INSTITUTUA		BizkaiKOA	
	2018	2017	2018	2017	2018	2017
Negozio zifratik zenbateko garbia.....	1.028	1.033	-	-	234	206
Hornikuntzak.....	-	-	(536)	(499)	(647)	(478)
Langileria-gastuak.....	(1.142)	(1.051)	(1.584)	(1.423)	(1.169)	(1.190)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(180)	(177)	(613)	(643)	(2.999)	(2.911)
Ibilgetua amortizatzea.....	(48)	(51)	(73)	(70)	(1.028)	(993)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte.....	45	45	73	70	1.028	993
Hornidura gehiegizkoak.....	1	1	-	-	-	-
Beste emaitza batzuk.....	-	-	-	-	11	3
<b>Ustiapenaren emaitza</b>	<b>(296)</b>	<b>(200)</b>	<b>(2.733)</b>	<b>(2.565)</b>	<b>(4.570)</b>	<b>(4.370)</b>
<b>Emaitza finantzarioa</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>ERAGIKETA JARRAITUEN EMAITZA</b>	<b>(296)</b>	<b>(200)</b>	<b>(2.733)</b>	<b>(2.565)</b>	<b>(4.570)</b>	<b>(4.370)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>(296)</b>	<b>(200)</b>	<b>(2.733)</b>	<b>(2.565)</b>	<b>(4.570)</b>	<b>(4.370)</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V.4 MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK

### A. EGOERAREN BALANTZEAK 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	APARKABISA		AZPIEGITURAK		BASALAN		BEAZ	
	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>23.826</b>	<b>24.839</b>	<b>241.913</b>	<b>246.198</b>	<b>447</b>	<b>619</b>	<b>415</b>	<b>577</b>
lbilgetu ukiezina.....	-	1	3.116	3.234	-	-	1	2
lbilgetu materiala.....	297	231	99.261	94.665	447	619	339	502
lbilgetuko inbertsioak.....	23.529	24.607	100.430	108.859	-	-	-	-
Taldeko eta elkartutako enpres. inberts. epe luzera	-	-	37.909	37.681	-	-	59	59
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	-	-	1.197	1.759	-	-	16	14
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>306</b>	<b>394</b>	<b>113.050</b>	<b>114.243</b>	<b>2.657</b>	<b>2.266</b>	<b>12.547</b>	<b>17.445</b>
Izakinak.....	-	-	92.445	90.548	27	31	-	-
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b.....	193	135	14.072	18.188	1.728	1.879	479	526
Taldeko eta elkartut. enpresen inberts. e/motz.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Epe motzeko finantza inbertsioak.....	-	-	504	536	8	2	-	-
28. Elkartegi bat eraikitzea Gernikan.....	2017 (*)	6.337	24	5.901	5.925	Q / AMAI
Amaierako ziurtagiria .....		575				
29. Fatxada aireztatuak aldatzea Miribillako frontoien eraik. eta Kiroletxean ..	2017	2.050	1.082	874	1.956	AMAI.
Amaierako ziurtagiria .....		(94)				
<b>INTERBIAK BIZKAIA SAMP</b>						
<b>OBRAK</b>						
30. Ermuko hegoaldeko saihsabidea egitea, Beko Erreka tartea .....	2014	30.065	28.789	5.767	34.556	Q, R / AMAI
Aldatua 1 .....	2015	1.080				
Aldatua 2 .....	2016	1.734				
Amaierako ziurtagiria .....		2.203				
(Kalitate kontrola % 1,5 AKBPre arabera).....		(526)				
31. Ermuko hegoaldeko saihsabidea egitea, Uretamendi tartea .....	2014	37.779	39.938	3.108	43.046	R / AMAI
Espediente aldatua .....	2016	3.373				
Amaierako ziurtagiria .....	2018	2.550				
(Kalitate kontrola % 1,5 AKBPre arabera).....		(656)				
1. osagarria.....	2017	238	-	257	257	AMAI.
Amaierako ziurtagiria .....		23				
(Kalitate kontrola % 1,5 AKBPre arabera).....		(4)				
32. Amorebieta-Muxika tartea amaitzea .....	2016	24.615	21.876	3.540	25.416	AMAI.
Prezioak berrikustea .....	2018	1.794	-	1.610	1.610	
Amaierako ziurtagiria .....		1.214				
(Kalitate kontrola % 1,6 AKBPre arabera).....		(442)				
Osagarria .....	2017	3.005	-	2.921	2.921	AMAI.
Amaierako ziurtagiria .....		(37)				
(Kalitate kontrola % 1,6 AKBPre arabera).....		(47)				
33. BI-2636 errepid. trazadura hobetzea Etxebarrin (50+860 KPtik 52+290 KPra)	2017	2.411	715	1.432	2.147	S / AMAI
34. AP-8ra sartzeko tuneletako instalazioak egokitzea.....	2017					
1. lotea: instalazio elektrikoak eta argiztapena .....		5.030	3.843	1.255	5.098	R / AMAI
Amaierako ziurtagiria .....		145				
(Kalitate kontrola % 1,5 AKBPre arabera).....		(77)				
2. lotea: segurtasun-instalazioak .....		8.659	3.106	5.747	8.853	EXEK.
Espediente aldatua .....		1.080				
3. lotea: AP-8ko bidesariko instalazioak Ermuan.....		1.095	645	539	1.184	S / AMAI
Amaierako ziurtagiria .....		107				
(Kalitate kontrola % 1,5 AKBPre arabera).....		(18)				
35. Bide-segurtasuna hobetzea Sopuertan, BI-2701 eta BI-3602 errepedeen arteko bidegurutzean .....	2017	1.069	-	934	934	EXEK.

.../...



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	HAS. URTEA	ZENBATEKOA ESLEIP.	EXEKUZIOA			AKATS. ETA EGOERA
			17.12.31	2018	18.12.31	
<b>ZERBITZUAK</b>						
36. Peñascal-Venta Alta 9. bide-zatiko obra zuzendaritzaren laguntza teknikoa						
Metropoli Hegoaldeko Saihesbidearen I. fasea.....	2008	6.984	-	262	262	U/ EXEK.
Aldatua 1.....	2018	1.183				
37. Metropoliaren hegoaldeko saihesbidea eta Artxandako tunelak kontserbatzea,						
mantentzea eta ustiatzea. 8 urte.....	2013	79.091	44.427	10.135	54.562	EXEK.
38. AP-8a kots., mant. eta ust., El Gallo/Urgoiti eta Ermua artean. 8 urte.....	2013	89.976	51.019	11.462	62.481	EXEK.
Aldi baterako zabaltzea, 2013-2014.....	2013	631				
<b>GUZTIRA</b>		<b>334.930</b>	<b>195.464</b>	<b>57.730</b>	<b>253.194</b>	

(\*) BEZik gabeko zenbatekoak. Esleipendunak ez du BEZa jasanarazten.

#### AKATSAK

Esleipena Euroak milakotan (BEZa barne)

A	Lote-ezaren justifikazio eskasa.....	1.838
B	Kontratazio organoak onartu gabe eskaintzak aurkezteko epea murriztea.....	1.452
C	Eskutatuko sailkapena kontratuaren balioaren arabera legokiokeena baino handiagoa.....	774
D	Prezioaren irizpideak ez dio puntuazio handiena ematen eskaintza merkeenari.....	2.008
E	Pleguek hobekuntzak ezartzen dituzte balorazio-irizpide gisa, baina zer alderdi baloratzen diren zehaztu gabe...	8.590
F	AKBPak ez ditu balioak ematen eskaintza bat neurritz kanpo baxuegitzat jo daitekeen zehazteko.....	37.867
G	Akatsak irekieran eta eskaintzen kalifikazioa.....	410
H	Kontratazio Mahaiaren osaeran akatsak.....	8.590
I	Ez da eskatzen eskaintza justifikatzeko neurritz kanpo baxuegia izan litekeelarik.....	544
J	Esleipena behin betiko bermea eratu aurretik egitea.....	11.292
K	Esleipen epea gaitutua.....	10.818
L	Ez da bete errekurso bereziari lotutako kontratua formalizatzeko epea.....	6.699
M	Kontratua formalizatzean atzerapen esanguratsua.....	4.537
N	Zuinketa egiaztatzeako akta izenpetzean atzerapena.....	774
O	Lan-programa onartzea falta da.....	1.838
P	Obrak gauzatzeko epea nabarmen luzatzea.....	1.556
Q	Betetzeko epea luzatzea onartu gabe.....	37.854
R	Obrak hartzean gorabeherak.....	79.940
S	Azken ziurtagiria onartzean atzerapena.....	3.506
T	Paragrafo indibiduala iritziaren atalean.....	410
U	Paragrafo indibiduala oharretan.....	90.036

Hona hemen Azpiegiturak SAMPEk iraungi ostean egikaritu dituen kontratuak eta bakoitzak 2018an eragindako gastua.

Euroak milakotan (BEZa barne)

XEDEA	PEMUGA	ZENBATEKOA
Uribitarte eguneko zentroa ustiatu eta mantentzea.....	17/11/01	216
Bizkaia frontoia kudeatzea eta mantentze-lana.....	17/08/08	642
<b>GUZTIRA</b>		<b>858</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hauek dira Euskalduna Jauregia BizkaiKOA FEEPEk baldintzen pleguetan ezarritako luzapenak formalizatu gabe egin dituen kontratuak, eta 2018an izan duten gastua:

Euroak milakotan (BEZa barne)

XEDEA	GASTUA
El Pobal Burdinolan jarduerak antolatu eta jendeari arreta ematea .....	160
Fábrica Museo La Encartada zentroan jarduerak antolatu eta jendeari arreta ematea .....	44
<b>GUZTIRA</b>	<b>204</b>

Hona hemen Euskalduna Jauregia SAUren kontratuak, zeinen egikaritzak ekitaldirako balio zenbatetsia gainditu baitute:

Euroak milakotan (BEZa barne)

XEDEA	BALIO ZENBATETSIA	2018KO GASTUA	GEHIKUNTZA	% IGOERA
Leihatilako arretarako zerbitzu osagarriak .....	73	82	9	12,33
Instalazioen mantentze-lan integrala .....	502	535	33	6,57
Bezeroa artatzeko laguntzaileen zerbitzuak .....	70	84	14	20,00
Ikus-entzunezko ekipoen alokairua (*) .....	(*) 85	96	11	12,94
<b>GUZTIRA</b>	<b>730</b>	<b>797</b>	<b>67</b>	<b>9,18</b>

(\*) Kopuru hau 2017ko esleipen-zenbatekoa da. 18.12.31n egikaritzaren guztira 113 mila euro izan da.

## A.8 DIRULAGUNTZEN ANALISIA

### A.8.1 DIRULAGUNTZA IZENDUNAK

Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	O FASEA		KONPROMISO	
	2018		KREDITUA	AKATS.
<b>IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA</b>				
Bizkaimendi federazioa: Bizkaiko landa eremuen garapena .....	712		-	
<b>GIZARTE EKINTZA</b>				
Lantegi Batuak Fundazioa: zentro okupazionala .....	5.969		-	
Usoa Lantegia SAU: Errendimendu txikiko enpleguaren lantegi okupazionala eta berezia .....	713		-	
FEKOOR: bizitza independenterako arreta-zerbitzu esperimentalak .....	590		-	
Ranzari Lantegia: Errendimendu txikiko enpleguaren lantegi okupazionala eta berezia .....	562		-	
<b>EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPENA</b>				
Bizkaia Talent: prestakuntza handiko pertsonentzako laguntzak .....	1.300		-	
Bilbao Metropoli 30: Bizkaia kanpoan sustatzea .....	700		-	
BEC: Bizkaia International Music Experience 2018 .....	550		-	
Bilbao Metropoli 30: Bizkaiko enpresak nazioartekotzea sustatzea 2018 .....	500		-	
Bilboko Merkataritza Ganbera: Bizkaia Exit .....	500		-	
Bilbao Ekintza EPEL: Bizkaiaren sustapen turistikoa 2018 .....	400		-	
<b>ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA</b>				
DEMA elkarteak: pertsonen enplegagarritasuna sustatzeko jarduketak .....	(*) 2.090		-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.586</b>		<b>-</b>	

(\*) Eusko Jaurlaritzak 324.227 euroren ekarpena egin du.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.8.2 DIRULAGUNTZA ZUZENAK

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan		
	O FASEA 2018	KREDITUA KONPROMISOA	AKATS.
<b>IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA</b>			
Gernika – Lumoko Udala Azoka-plaza zaharberritzea .....	530	-	
Bermeoko Udala: Aparkaleku gunea egikaritzea .....	515	-	
<b>EUSKARA ETA KULTURA</b>			
Durangoko Udala: Atletismoko pista-ekipamenduak .....	600	-	A
Santurtziko Udala: Atletismoko instalazioak berritzea .....	420	-	A
Erandioko Elizateko Udala: Kirol instalazioak hobetu eta berritzea .....	384	-	A
Basauriko Udala: Erabilera anitzeko pista eraikitzea .....	300	-	A
<b>EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPENA</b>			
Bilbao Ekintza EPEL: MTV EMA sariak ematea .....	1.775	-	
Turismoaren Euskal Agentzia SA: Routes Europe 2018 egitea .....	315	-	
Bilbao Metropoli 30: The world's 50 best restaurants .....	300	-	
AIC Automotive Intelligence Center Fundazioa: atzerriko bekak .....	180	-	
Tecnia Fundazioa: Eredua hedatzea (MD 14.0) .....	159	-	
BEC: Bizkaia International Music Experience 2018 .....	100	-	
<b>ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA</b>			
DEMA elkarteak: Abian eta Eskutik programak .....	(*) 793	-	
DEMA elkarteak: Enplegua-Prestakuntza eta Prestakuntza teknikoa emakumeetan .....	504	-	
DEMA elkarteak: Ekintzaile gazteen sarea, anezka berriak eta Anezka .....	330	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.205</b>	<b>-</b>	

(\*) Eusko Jaurlaritzak 475.773 euroren ekarpena egin du.

## A.8.3 DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan			
	D FASEA 2018	O FASEA 2018	KONPROMISO KREDITUA	AKATS.
<b>IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA</b>				
68/2018 FD Basoen bideragarritasunerako inbertsioak .....	1.104	1.104	22	
158/2017 FD 5. edukiontzia ezartzea .....	732	732	-	
<b>EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPENA</b>				
2/2018 FD, Enpresa berritzaileak sortzea Proiektua garatzeko gastuak .....	842	842	122	
41/2018 FD Turismoaren garapena Bilbao-Bizkaia destinoarekin .....	628	628	-	
<b>ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA</b>				
25/2018 FD Dibertsitatea kudeatzeko jarduerak .....	580	580	-	
27/2018 FD BEHARGINTZA Enpleguaren eta tokiko garapenaren zentroak .....	725	725	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.611</b>	<b>4.611</b>	<b>144</b>	





## A.8.4 AURREKO EKITALDIETAN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

AURREKO EKITALDIETAKO EMAKIDAK ETA 2018KO URTEKO KUOTAK Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	AURREKO EKITALDIAK	GASTUA 2018	KONPROMISO KREDITUA	AKATS.
<b>IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA</b>				
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa: Inbertsioak.....	326.000	24.000	31.000	
Hazi Fundazioa Life 2011 proiektua .....	494	80	-	
Getxoko udala: Hondartzak garbitu eta egokitzea.....	848	426	445	
<b>EUSKARA ETA KULTURA</b>				
Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa: obrak erostea .....	400	100	-	
Kirol-federazioak: 2016-2019ko funtzioak gauzatzea .....	1.988	991	997	
<b>GARRAIOAK, MUGIKORTASUNA ETA LURRALDEAREN KOHESIOA</b>				
Euskal Trenbide Sarea: Metroaren 3. linea.....	136.949	369	540	
<b>EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPENA</b>				
BIZKAIA TALENT: prestakuntza handiko pertsonentzako laguntzak .....	1.300	-	-	
BIZKAIA TALENT: prestakuntza handiko pertsonentzako laguntzak .....	162	-	-	
AIC Automotive Intelligence Center Fundazioa: Atzerrirako bekak .....	180	-	-	
AIC Automotive Intelligence Center Fundazioa: II. fasea .....	24.910	2.500	-	
AIC Automotive Intelligence Center Fundazioa: III. fasea .....	11.000	500	4.000	
Hegan Aeronautika Klusterra: aeronautika-ikasgela garatzea .....	252	36	-	
72/2017 FD, Enpresa Berritzaileak Sortzeko Programa.....	1.400	88	-	
49/2017 FD, ETE/PYMEen nazioartekotzeari buruzkoa .....	1.337	473	-	
199/2015 FD, berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntzeko programari buruzkoa .....	3.400	-	-	
CECOBI: Bizkaiko merkataritzaren egoera hobetzea .....	338	62	-	
ELKARGI: ETE/PYMEak nazioartekotzeko proiektuen finantzaketa .....	53	150	148	
<b>ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA</b>				
CECOBI: Lanbide birkualifikazioa:.....	142	25	-	
61/2017 FD, garapenerako lankidetzari buruzkoa .....	4.600	-	-	
51/2017 FD, laneratzeko zailtasuna handiak dituzten pertsonen enplegarritasuna sustatzeko .....	2.141	535	-	
57/2017 FD, gazteen enplegarritasuna sustatzeko .....	1.188	17	-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>519.082</b>	<b>30.352</b>	<b>37.130</b>	

DIRULAGUNTZEN GABEZIAK

Emandako zenbatekoa (euroak milakotan)

A Irizpenetan jasotako berariazko akatsa.....	1.704
---	-------



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.9 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU BATERATUAK

### A. 2018KO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITATUAK	DIRUBILK. LIKIDOA	KOBRA T. GABE
	HASIERAKOA	ALDAKETAK	BEHIN-B.			
1.-Zerga zuzenak .....	3.598.700	267.171	3.865.871	3.868.977	3.810.025	58.952
2.-Zeharkako zergak .....	3.824.116	-	3.824.116	3.890.847	3.723.231	167.616
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	164.226	51	164.277	185.036	125.807	59.229
2.- Transferentzia arruntak .....	62.231	2.809	65.040	83.226	80.107	3.119
5.- Ondare sarrerak .....	573	173	746	1.565	1.563	2
6.- Enajenación Inbertsio errealak .....	900	887	1.787	1.390	1.390	-
7.- Kapital transferentziak .....	7.590	115	7.705	6.112	6.095	17
8.- Aktibo finantzarioen bariazioa .....	1.150	21.205	22.355	1.075	1.075	-
9.- Pasibo finantzarioen bariazioa .....	154.186	-	154.186	154.186	154.186	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.813.672</b>	<b>292.411</b>	<b>8.106.083</b>	<b>8.192.414</b>	<b>7.903.479</b>	<b>288.935</b>

GASTUAK	AURREIKUSPENA			OBLIGAZIO KITATUAK	ORDAINK. LIKIDOA	ORDAINDU GABE
	HASIERAKO	ALDAK.	BEHIN BET.			
1.-Langileen ordainsariak .....	264.079	5.474	269.553	264.458	258.494	5.964
2.- Gastu arruntak .....	501.306	(45.704)	455.602	443.009	366.104	76.905
3.-Pasibo finantzarioak .....	48.019	(14.000)	34.019	25.496	25.496	-
2.- Transferentzia arruntak .....	6.584.200	292.527	6.876.727	6.842.625	6.730.465	112.160
5.- Ordainketa osoaren kreditu funtsa .....	2.021	(1.053)	968	-	-	-
6.- Inbertsio errealak .....	74.067	45.699	119.766	110.790	88.348	22.442
7.- Kapital transferentziak .....	79.453	8.296	87.749	72.034	56.945	15.089
8.-Aktibo finantzarioen bariazioa .....	106.341	1.172	107.513	105.975	105.975	-
9.-Pasibo finantzarioen bariazioa .....	154.186	-	154.186	154.186	154.186	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.813.672</b>	<b>292.411</b>	<b>8.106.083</b>	<b>8.018.573</b>	<b>7.786.013</b>	<b>232.560</b>

### B. 2018-KO EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIO BATERATUA

Euroak milakotan

	HASIERAKO	ESKUB./OBLIGAZ.	(KOBRA.)	AZKEN	EMAITZA/
	ZORRA	KITATUAK	ORDAINK.	ZORRA	BAJAK
Zordunak .....	1.648.470	1.621.044	189.935	1.431.109	(27.426)
Hartzekodunak .....	175.759	175.759	168.465	7.294	-
					<b>(27.426)</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

C. DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA BATERATUA, 2018		Euroak milakotan
Eskubide kitatuak .....		8.192.414
- Obligazio aitortuak.....		(8.018.573)
<b>EKITALDI ARRUNTAREN EMAITZA (1)</b>		<b>173.841</b>
<b>EKITALDI ITXIEN BARIAZIOAK (2)</b>		<b>(27.426)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA (1+2)</b>		<b>146.415</b>
Finantza doiketaren aldaketa.....		(57.309)
Itunpeko zergen kobrantzaren doiketaren bariazioa .....		(31.340)
Bestelako doiketak .....		845
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA BATERATUA, 2018</b>		<b>58.611</b>

D. METATUTAKO EMAITZA BATERATUA 2018.12.31-N		Euroak milakotan
2018ko ekitaldiaren emaitza bategina .....		(22.360)
2018ko ekitaldiaren emaitza.....		58.611
<b>2018KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA</b>		<b>36.251</b>

E. EGOERAREN BALANTZE BATERATUA 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2018	2017	PASIB.	2018	2017
<b>IBILGETUA</b>	<b>2.285.929</b>	<b>2.206.763</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>	<b>456.680</b>	<b>238.981</b>
Ibilgetu immaterialak .....	7.668	7.768	Kapital harpidetua/Ondarea .....	253.960	253.222
Ondasun ibilgetu materialak .....	2.009.738	1.952.460	Kontsolidat. sozietateetan erreser. ....	(3.025.075)	(2.745.942)
Abian dagoen ibilgetu materiala ....	189.329	155.430	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	3.037.669	2.148.799
Ibilgetu finantzarioak .....	79.194	91.105	Bazkide nagus. egotz. galera eta irab. ...	190.126	582.902
<b>BATERATUTAKO</b>					
<b>MERKATARITZA FUNTSA</b>	<b>3.773</b>	<b>638</b>	<b>KANPOKO KIDEAK.....</b>	<b>(2.736)</b>	<b>(1.706)</b>
			Kanpoko kideak.....	(1.636)	(784)
			Kanpo. bazkid.egotz.galera eta irab.....	(1.100)	(922)
<b>AKTIBO ERABILKORRA</b>	<b>979.346</b>	<b>859.864</b>	<b>BATERATZ. DIFER. NEGATIBOA</b>	<b>6.580</b>	<b>6.580</b>
Eskat. ordainketeng. akziod. ....	-	-			
Izakinak .....	92.533	90.642	<b>HAINBAT EKIT. BANATZ. SARR.</b>	<b>(6.212)</b>	<b>3.354</b>
Zordunak .....	197.653	202.678	Kapitalezko dirulaguntzak.....	(3.687)	6.362
Aldi bateko finantza inbertsioak.....	2.944	3.180	Bestelakoak .....	(2.525)	(3.008)
Diruzaintza .....	683.093	561.357			
Aldizkatzeagatikoko doikuntzak .....	3.123	2.007	<b>ARRISKU ETA GASTUETAR. HORNID.</b>	<b>359.175</b>	<b>329.576</b>
			<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>	<b>1.897.566</b>	<b>1.913.316</b>
			<b>HARTZEKOD. EPE MOTZERA</b>	<b>557.995</b>	<b>577.164</b>
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>3.269.048</b>	<b>3.067.265</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>3.269.048</b>	<b>3.067.265</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

F. 2018 ETA 2017KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan	
GASTUAK	2018	2017	DIRU-SARRERAK	2018	2017
Ustiaketaren kontsumoak .....	109.797	120.103	Sarrera propioak .....	8.093.966	7.811.040
Langileria-gastuak .....	314.830	303.801	Bestelako dirulaguntzak .....	93.150	243.090
Ibilgetua amortiz. zuzkidurak .....	66.751	61.403			
Trafiko zuzk. bariatz. eta kdtu.galerak	54.949	(421.717)			
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	7.351.506	7.287.554			
<b>USTIAKETA MOZKINAK</b>	<b>289.283</b>	<b>702.986</b>			
Gastu finantzarioak.....	68.295	72.207	Sarrera finantzarioak.....	1.592	522
Finantza inb. zuzkidur. bariatz.....	15.488	51.849			
			<b>FINANTZA EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>82.191</b>	<b>123.534</b>
Ibilgetu mat. eta immat. zuzk. bar.....	3.370	89	Ibiltu materiala bestereng. mozkina ..	5.089	3.902
Ibilgetutik eratorritako galerak .....	23.531	1.746	Emaitz.transf. kapitalezko dirulag. ....	4.984	1.459
Gastu bereziak .....	1.499	1.075	Sarrera bereziak .....	585	92
<b>APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>-</b>	<b>2.543</b>	<b>APARTEKO EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>17.742</b>	<b>-</b>
<b>ZERGA AURRETIKO MOZKINA</b>	<b>189.350</b>	<b>581.995</b>			
Sozietateen Zerga .....	324	15			
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>189.026</b>	<b>581.980</b>			
Sozietate nagusiaren gal. eta irab.....	190.126	582.902			
Kanpoko bazkideen gal. eta irab.....	(1.100)	(922)			



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ALEGAZIOAK BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO 2018KO EKITALDIKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI

### II. IRITZIA

#### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. BFAk, Giza Baliabideen Planarekin bat, PFEZetik salbuetsitako laneko etekintzat hartzen ditu borondatezko erretiroagatik, erabateko ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2018an 114 langileri ordaindutako primak –guztira 5,1 milioi euro–. Planak ez du aipatzen argudiorik jarduketa horiek, Langileen Estatutuaren testu bategineko 51. artikulua betez, arrazoi objektiboen ondoriozko kaleratze kolektiboekin edo utzarazpenekin berdinsteko; halakoetan, administrazio publikoen kasuan, kalte-ordainak salbuetsita daude, hala xedatzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikulua.

### HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

2018. urtean Bizkaiko Foru Aldundiko langileek ondoren aipatzen diren modalitateetan jaso dituzten kalte-ordainen PFEZEN tributazioa:

- a) Kalte-ordaina jasotzen duten aurreratutako erretiroak
- b) Ezintasun iraunkor osoaren adierazpena duten langileak eta
- c) Langile publikoaren izaerari uko egitea

PFEZ arautzen duen 13/2013 Foru Arauko 9. artikuluko 5. idatz-zatiko azken paragrafoak xedatzen duen bezala, administrazio publikoek onetsitako Giza Baliabideen plan estrategikoen betearazpenaren ondorioz administrazio horietako langileek jasotzen dituzten kalte-ordainak salbuetsita daude, lan-erregulazioko espedienteekin berdinsten baitira. Kalte-ordain horien gehieneko kopurua bidegabeko kaleratzeen kasurako Langileen Estatutuak ezartzen duen nahitaezko muga izango da, hau da, 45 soldata-egun zerbitzuan emandako urte bakoitzeko (zerbitzu-aldia urtebete baino laburragoa izanez gero, kopuru hori proportzionalki hainbanatuko da), gehienez ere 42 ordainketa 2012ko otsailaren 11ra arte, eta hortik aurrera, 33 soldata-egun zerbitzuan emandako urte bakoitzeko (zerbitzu-aldia urtebete baino laburragoa izanez gero, kopuru hori proportzionalki hainbanatuko da), gehienez ere 24 ordainketa.

Artikulu hori irakurri besterik ez da egin behar salbuespenak bertan egiaztatzen direla ikusteko:

“13/2013 Foru Araua, 9. artikulua

Salbuetsitako errentak:

5. Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuan, hura garatzeko araudietan edo, halakorik balego, epaiak betearazteko araudian



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

nahitaezko izaeraz ezarritako kopuruetan; hitzarmen, itun edo kontratuetan finkatutako kalte-ordaina ezingo da nahitaezko izaeraz ezarritako kalte-ordaintzat hartu. Era berean, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 103.2. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, bazkideak kooperatiba uzteagatik jasotzen dituen kalte-ordainak ere salbuetsita egongo dira; lan-araudiak Langileen Estatutuko 52. artikuluko c) letran aipatzen den kargugabetze kasuetarako nahitaez ezartzen duen zenbateko bera dago salbuetsita.

Aurreko paragrafoetan jasotakoaren kalterik gabe, Langileen Estatutuko 51. artikuluan arabera eginiko kaleratze kolektiboak direnean edo kontratuak estatutu horretako 52.c) artikuluan jasotako arrazoiengatik amaitzen direnean, zerga ordaintzetik salbuetsiko da estatutu horretan bidegabeko kaleratzeagatik nahitaezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia, betiere kaleratzeak eta kontratu-amaitzeak gertatu badira edo arrazoi ekonomiko eta teknikoengatik, edo ezinbesteko kasuengatik, edo antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiengatik. Ordezkatza-kontratu batean dauden langileek lan-harremana desegin eta lan-jarduera lehenago uzteagatik langileek jasotzen dituzten kopuruak ere muga horiekin egongo dira salbuetsita.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, administrazio publikoek Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako arrazoietako bat oinarritzat hartuta giza baliabideen arloan egiten dituzten plan estrategikoak aurreko lerroaldean aipatzen diren kaleratze kolektiboekin eta kaleratze nahiz kargugabetze objektiboekin parekatuko dira.

Zenbaki honetan ezartzen den kalte-ordain salbuetsia 180.000 euro izango da, gehienez.

Artikulu hau Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onesten duen apirilaren 8ko 47/2004 Foru Dekretuaren 7. artikuluan, langileek kaleratzeagatik edo lana utzarazteagatik jasotzen dituzten kalte-ordainei buruzkoan, garatzen da; honela dio hitzez hitz:

“Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 5. zenbakian ezarritako salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da langileak inolako loturik ez edukitzea enpresarekin. Kontrako frogarik izan ezean, ondoko kasuan langileak enpresarekin lotura daukala pentsatuko da: baldin eta kaleratu edo lana utzarazi ondoko hiru urteetan berriz ere enpresa berari, edo berarekin lotutako beste enpresa bati (lotura sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera izan behar da), zerbitzuak egiten hasi bada; nolana ere, lotura bazkide-sozietatearen arteko harremanen arabera definitzen bada, partaidetza %25ekoa edo handiagoa izan behar da (edo % 5 edo handiagoa, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean finantza-tresnen merkatuei buruz emandako 2004/39/EE Zuzentarauaren III. tituluan definitzen diren baloreen merkatu arautuetan negoziatzen diren baloreak izanez gero). Salbuetsitako gehieneko kopurua, 180.000 euro, langilearen laneratze edo lan-utzarazpen bakoitzeko aplikatuko da, kalte-ordaina ordaintzeko modua gorabehera”.

Giza Baliabideen Plan Estrategikoak martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren testu bateginekoko 51. artikuluan aipatutako arrazoiak egiaztatzen ditu. Horren arabera, aurreko gertaerak kaleratze kolektiboekin eta arrazoi objektiboen ondoriozko kaleratze edo utzarapenekin berdinsteko arrazoiak gertatzen direla egiaztatzen da, eta horrenbestez, kalte-ordain horiek kargatik salbuetsita



daudela, PFEZi buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikuluan eta zerga horren araudian xedatzen den bezala, zeren, berezkoa duen legeriaren esparruan, langile kopurua (eta beraz enplegua) arrazionalizatzeko plana baita; zioen azalpenak hauxe dio:

“Urriaren 21eko 152/2008 Foru Dekretua onetsi zen Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Planaren ondoriozko arrazionalizazio-sistemak garatzeko, hain zuzen ere Funtzio Publikoaren erreformarako neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legean xedaturiko lege-ezarpenak betearazteko. Plan hura 1996ko ekainaren 25ean onetsi zuen Gobernu Kontseiluak.

Abenduaren 29ko 22/1993 Legearen bidez sartu zen abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian xedatuenez, autonomia erkidegoek eta tokiko korporazioek, beren burua antolatzeko ahalmenarekin bat, giza baliabideen beste arrazionalizazio-sistema batzuk har ditzakete enplegu planez gain, beren berezitasunetara egokitutako programen bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea aplikatzen da. Lege horren 22. artikulua araber, Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituak zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin behar da, gobernu-organismoek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/207 Legearen 69. artikuluan, beren giza baliabideak antolatzeko planak onesteko ahalmena aintzatesten zaie herri administrazioei.

Hortaz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Planak eta horren ondoriozko urriaren 21eko 152/2008 Foru Dekretuaren bidez, azaldutako marko juridikoaren baitan hauexek biltzen dituzte: Bizkaiko Foru Aldundiaren giza baliabideak arrazionalizatzeko zenbait neurri.

Neurri horien artean, beren zerbitzuko langileriaren erretiroari buruzko neurriak daude, baina, gaur egun, neurri horiek garatzen jarraitu beharra dago, baita zerbitzu aktiboaren luzapenerako muga Giza Baliabideen Plan Estrategikoan sartu ere, halako moldez non, oro har, funtzionarioen eta lan-itupeko langileen nahitazeko erretiroa ohiko adinean ezarriko baita Gizarte Segurantzaren araubidearen edo kasuan kasuko mutualitatearen arabera.

Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoak jarraituriko ildoan kokatzen da; izan ere, 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 20ko 4/2013 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian, muga hori bildu da bere zerbitzuko funtzionarioentzat.”

Horrenbestez, Langileen Estatutuko 51. artikuluan xedaturikoa, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren esparru juridikoan berezkoa den araudiaren arabera, Herri Administrazioan ezarritako egokitzapena da. Ekoizpeneko bitartekoetan edo tresnetan, laneko sistemetan eta metodoetan izandako aldaketak eta ekoizpena antolatzeko moduak



aipatzen dira zuzenean. Administrazioan, plantillei eta lanpostuen zerrendei dagokie, eta hori arrazionalizatzeko onetsi zen hain zuzen ere Giza Baliabideen Plana.

Herri administrazioetako giza baliabideen plan estrategikoak, haien araudia ikusita, administrazioak bere beharretarako balia ditzaketen giza baliabideak arrazionalizatzeko eta egokitzeko programak direla esan daiteke, beren burua antolatzeko ahalmen espezifikoarekin bat etorrira eta aurretik langileriaren ordezkartzarekin negoziatuta. Programa horietan, enplegu planak aplikatzeko araudi orokorrean ezarritako neurriez gain, borondatezko eszedentziarako, aurreratutako erretirorako, zerbitzu aktiboari uko egiteko edo zerbitzuan behin betiko baja hartzeko pizgarriak sar daitezke.

Bestalde, enpresa pribatuaren eta lan-zuzenbidearen eremuan, lana erregulatzeko espedienteak irazpen kolektiboak egiteko administrazio prozedurak dira, irazpen horiek beharrezkoak baldin badira enpresaren egoera ekonomiko txarra gainditzen saiatzeko (kausa ekonomikoak baldin badira) edo enpresaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko, bere giza baliabideak modu egokiagoan antolatuz (kausa teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak badira).

Horregatik, herri administrazioei datxekien giza baliabideen plan estrategikoen eta lan-zuzenbideari datxekion enplegu-erregulazioko espedienteen artean dauden antzekotasunak ikusita (bereziki kontuan hartuta biak bideratzen direla enplegatzaileak giza baliabideak beren antolamenduko behar objektiboetara egokitzeko eta arrazionalizatzeko), antzeko tratamendua ematen die PFEZFAk kontzeptu batean edo bestean jasotako pizgarriei eta kalte-ordainei, 9.5. artikuluan araupeturiko salbuespenaren ondorioetarako, eta sail eskudunak jakinarazita duenez plan estrategiko horien kasuan, antolamenduaren arloko kausak dira oinarria, Aldundiaren plantilla arrazionalizatzeko eta berregokitzeko, betiere Aldundian enpleguaren geroko bideragarritasuna bermatze aldera eta bere giza baliabideak egokiago antolatuz. Horregatik dago salbuetsita enplegatuek jasotako kalte-ordainaren zatia, baldin eta Langileen Estatutuan bidegabeko irazpenerako ezarritako nahitaezko mugak gainditzen ez badira betiere.

Hauxe dio hitzez hitz LEren 51. artikulua:

"Kaleratze kolektiboa. 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duena. (2015eko azaroaren 13tik indarrean dagoena).

1. "Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kaleratze kolektibo esango zaio ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko arazoietan oinarrituta kontratuak amaitzeari, laurogeita hamar eguneko epean amaitzeak honako hauengan badu eragina:

- a) Hamar langile, ehun langile baino gutxiago dituzten enpresetan.
- b) Ehun eta hirurehun langile arteko enpresetan, langileen % 10.
- c) Hogeita hamar langile, hirurehun langiletik gorako enpresetan.

Kausa ekonomikoak tartean direla joko da baldin eta enpresaren emaitzak ikusita agerikoa bada egoera ekonomiko negatiboa duela enpresak; adibidez, gaur egun galerak izatea edo gerorako galerak aurreikustea, edo diru-sarrerak nahiz salmentak luzaroan gutxituz joatea.





Nolanahi ere, murrizpena iraunkortzat joko da hiru hiruhilekotan jarraian salmentak edo sarrera arruntak aurreko urteko hiruhileko berdinetan baino gutxiago badira.

Kausa teknikoak tartean direla joko da baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, ekoizteko bitarteko edo tresnen alorrean. Antolaketako kausak izango dira baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, langileen lan-sistemetan edo ekoizpena antolatzeko lan-moduetan. Eta ekoizpeneko kausak izango dira baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, enpresak merkatuan sartu nahi dituen produktuen edo zerbitzuen eskarian.

.../...

Atal honen lehen paragrafoan aipatzen den kontratuen azken kopurua zenbatzeko, aipatutako aldiaren enpresak hala eskatuta gertatutako edozein kontuan hartuko da, 49.1.c). artikuluan ezarritakoak ez diren langileari atxiki gabeko beste arrazoi batzuen arabera, betiere, gutxienez, bost badira.

Ondoz ondoko laurogeita hamar eguneko aldietan, artikulua honetan jasotzen diren aurreikuspenak saihesteko helburuarekin, enpresak kontratuak azkentzen baditu, 52.c). artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatutako tarteen azpitik, hori justifikatzen duten arrazoi berririk ez badago, azkentze horiek lege-iruzurrean egindako azken berriztat hartuko dira. Horrela, baliogabetzat eta eraginik gabekotzat hartuko dira.

Hortaz, egiaztatuta geratu da badaudela argudioak jarduketa horiek, Langileen Estatutuaren testu bategineko 51. artikulua betez, arrazoi objektiboen ondoriozko kaleratze kolektiboekin edo utzarazpenekin berdinsteko; halakoetan, kalte-ordainak salbuetsita daude, hala xedatzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikulua. Izan ere, administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoak, haien araudia ikusita, administrazioak bere beharretarako baliabideak arrazionalizatzeko eta egokitzeko programak direla esan daiteke, eta plan estrategiko horren kasuan beren antolamenduko behar objektiboetara egokitzen dira, sail eskudunak jakinarazi duen moduan.

Halaber, nabarmendu behar da, ez PFEZ arautzen duen 13/2013 Foru Arauaren 9. artikulua, ez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia onartzen duen apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren 7. artikulua, ez dutela ezartzen giza baliabideen plan estrategikoak aurrez ezarritako arrazoi batzuk izatea.

Hala ere, plantillak arrazionalizatzeko plan bat gisa konfiguratzeko den giza baliabideen plan estrategikoa irakurrita, Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Planak ekarritako arrazionalizazio sistemak garatuz, 1996ko ekainaren 25eko Gobernu Aholku Batzordeak hasiera batean onartu zuena, aurretik adierazi den moduan, benetako plana dela ondoriozta daiteke. Horren bidez, enplegatzailea giza baliabideak bere antolaketa behar objektiboetara egokitzeko eta arrazionalizatzeko baliabideak ezartzen dira, enplegua erregulatzeko espedientei dagokien antzera, beraz, egiaztatuta geratu da aipatzen diren antolaketa-arrazoiak badaudela.

PFEZ arautzen duen 13/2013 Foru Arauaren 9. artikulua, edo, apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren 7. artikulua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

erregelamendua onartzen duenak, ez dute azkentze kopuru jakina ezartzen. Ez da inola ere baldintza bat, aplikatzeko araubidearen arabera, izan ere, bestela, salbuesteko ondorioen antzekotasuna ezartzen duen arautegiak berak izan beharko luke, hala balebago, horretarako baldintzak ezarri beharko lituzkeena.

*2. BFAk eta GUFEk, 2012-2013 ekitaldietako erosteko ahalmenaren galeraren ziozko zorra itzultzeko, funtzionarioentzako akordioko 70.4. artikuluan eta lan-itunpeko langileentzako Hitzarmeneko 92.4. artikuluan bildua, eta 2018ko aurrekontuen 3. eta 4. ataletako bigarren xedapen gehigarria aplikatuz, handitu egin dute beren langile guztien berariazko osagarria, 2018an lanpostu bakoitzeko ordainsarien % 1,3. Esleipen horrek aldarazi egiten du funtzio publikoaren araudian ezarritako berariazko osagarriaren izaera. Gehikuntzaren ordainketa, 1,9 milioi euro, BFAREN kasuan, eta 553.132 ero, GUFERenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2019. urterako aurrekontu orokorrei buruzko abenduaren 27ko 8/2018 FAren 4. ataleko bigarren xedapen gehigarriak baliozkotu zuen.*

## HERRI ADMINISTRAZIOAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

Bizkaiko Lurralde Historikoko 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 4/2017 Foru Arauan, bere aplikazio-eremua eta banatzeko irizpideak ezarri ditu pertsonalaren ordainsariei dagokienez, eta abenduaren 28ko 4/2017 Foru Arauko 24. artikuluko 1. Idatz-zatian nahiz aipaturiko artikuluko horretako 2. Idatz-zatiko lehen paragrafoan agertzen den pertsonala zehazten da (gehituriko eranskinaren arabera).

Aipaturiko kopuru horiek Estatuko 2001eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 13/2000 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako irizpideen menpe jarriko dira, 2017. urterako diru-kopuruak sartzearen ondorioetarako, ekitaldi horretarako enplegatutako publikoaren aldizkako ordainsarien barruan finkatzeko.

Hori horrela, 2017ko ekitaldian ordaindu ziren kopuruek irizpide berari jarraituko diote, 24. artikuluko 1. eta 2. ataleko ordainsarien barruan finkatzeko.

"Erakunde autonomoek, proportzionaltasun irizpide bat betez, emaitzako zenbatekoak inkorpora ditzakete urteko ordainsariak ezartzeko".

Bizkaiko Lurralde Historikoko 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 4/2017 Foru Arauko 24. artikuluan, ahaldun nagusiaren, ahaldun nagusi ordearen, foru diputatuen eta zuzendari nagusien eta Foru Administrazioaren zerbitzurako pertsonalaren eta aldi baterako pertsonalaren ordainsariak arautzen dira, eta baimen horren osagarria 2018rako Aurrekontuen Foru Arauko 4. Idatz-zatiko bigarren xedapen gehigarrian xedatu dena da. Bertan ezarritakoaren arabera:

"4. Baimena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiari Akordioko 70.1. eta indarreko Hitzarmeneko 92.1. artikuluetako konpromisoen ondoriozko zenbatekoa nahiz ordainketa kontzeptuak eta epeak negoziatzeko, aurreko urteetako hitzarmenetan eta akordio kolektiboetan ezarritako ordainsarietan aipaturiko soldaten arloko araudiak aplikatuz, baita



horiek guztiak ordaintzeko ere. Hartara, I. kapituluko ekonomiak erabili ahal izango dira, eta ordainketa bakar gisa edo urteko gehikuntzaren gehigarri gisa ordaindu ahalko da”.

Horregatik, 2018rako aurrekontuei buruzko Foru Arauko 4. ataleko bigarren xedapen gehigarri honetan ezarritakoa betez, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 27ko erabakiaren bidez ezarri zen baldintza bereko zehazpen negoziatuari lotuta, besteak beste hitzarmenaren 92.1. eta erabakiaren 70.1 artikuluetan sortutako konpromisoei dagokienez, zeinek Bizkaiko Foru Aldundiko eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko langileen lanbaldintzak arautzen dituzten Erabakia zein Hitzarmena indarrean jarraituz, bi testuen 3. artikuluek ezarritakoa aplikatuz, 2018ko martxoaren 27ko Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakiaren bidez onartutakoak, Foru Arau horren 24. artikuluaen aurreikuspena aplikatu ahalko da. Horrela, zehazpen horren arabera, lanpostuak hartzeagatiko ordainsari osagarri gisa ordainduko da, haien prezioekiko proportzioan.

Horrexegatik, Aurrekontuen Foru Arauaren bidezko baimena argia izateaz gain, prozedurak ere Foru Arau horretako 24. artikuluan nahiz 4. artikuluko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa bete du, eta onartutako gehigarrian eta kontzeptuan ordaindu.

Berariazko osagarriaren izaera ez da aldatzen igoerak aplikatzeagatik, ezta honako araudi honengatik ere, ikus daitekeen bezala: ez du eragozten eremu guztietan aplikatu behar izatea gainerako ordainsarietatik bereizitako igoerak, edo ezarritako bestelako ordainsariak konpentsatzeko edo horietara iristeko erabiltzea.

Berariazko osagarria lanpostuen analisi funtzionalari dagokio, baita berariazko osagarri horretarako aintzat hartu beharreko osagaien alderaketari ere. Osagarria zenbatu ondoren, igoerak ezartzen dira, kasuak kasu aplikatu beharreko araudiaren arabera zehazten direnak.

Alderdi jakin bat ordaintzen du ordainsariaren kontzeptu bakoitzak, eta horrek ez du galarazten hurrengo igoerek edo ondoz ondoko araudiek haiek aldatzea.

Ildo horretan, adibide asko dago eta, berariazko osagarria aztertzeari ekin baino lehen, eta argigarria denez, ohar bat egin behar da oinarritzko araudiari dagokionez. Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 22. eta 23. artikuluetan, oinarritzko ordainsariak araupetzen dira, hain zuzen ere funtzionarioari ordaintzen zaizkionak lanbide sailkapeneko azpitalde edo talde jakin bateko kidegoaren edo eskalaren arabera, azken horrek azpitalderik ez badu, eta kidego edo talde horrek duen antzinasunagatik. Horien barruan sartzen dira soldata osagaiak eta aparteko ordainketen hirurtekoak (urtean aparteko bi paga izango dira), bakoitza oinarritzko ordainsarien zenbatekoagatik eta ordainsari osagarri guztiengatik, 24. artikuluko c) eta d) ataletan aipatzen direnak izan ezik.

Hirurtekoei buruz dioenez, gainera, diru-kopuru batean dautza, hain zuzen ere berdina izango dena lanbide sailkapeneko azpitalde edo talde bakoitzerako, baldin eta talde horrek azpitalderik ez badu, zerbitzuko hiru urte bakoitzeko.

Alabaina, 2010. urtean, defizit publikoa gutxitzeko ezohiko neurriak hartzeko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretu-legearen ondorioz aldatu zen, eta zenbateko desberdinak ezarri ziren aparteko pagen hirurtekoetarako, hileko zenbatekoekiko. Era berean, irizpide desberdina da talde desberdinetarako, kontzeptuei buruzko oinarritzko definizioa aldatu ez bazen ere.



Ildo beretik, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatu behar da, ezohiko ordainketa nahiz berariazko osagarriaren ordainketa gehigarria edo ordainketa gehigarri baliokideak oro har kentzeari dagokionez, baita ordainketok berreskuratzeko ere 36/2014 Legearen hamargarren xedapen gehigarriko bigarrenean ezarritako norainokoarekin eta mugekin.

Berariazko osagarriaren araudi zehatza aztertuta, une honetan estatu mailako araudia nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko araudia sartu beharra dago. Hala: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onetsi duen egungo urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak ez du berariazko osagarriaren definiziorik ematen, ezta osagarri horrek ordaintzen duenari buruzkoa ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren araudian Euskal Funtzio Publikoaren Legea eta horren arauen garapena ditugu.

Zehatzago, urteetan hainbat aldaketa izan dituzten ordainsariei buruzko dekretuetara jo beharra dago. Ondoren laburbilduko dira: Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen ordainsariei buruzko uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuan ezarri zenez, lanpostuetako baldintza partikular konkurrenteak ordainduko ditu berariazko osagarriak, betiere erantzukizunaren eta zailtasun tekniko bereziaren, bateraezintasunaren, arduraldi bereziaren, nekagarritasunaren eta arriskugarritasunaren arabera. Hasieran, formula bat ezarri zen berariazko osagarri horren zenbatekoaren mugatzat.

Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen 1991rako ordainsariei buruzko abenduaren 17ko 696/1991 Dekretuak aldatu egin zituen ordainsarien gehieneko kopuruak, berariazko osagarria barne, eta nabarmentzekoa da haren xedapen gehigarriak ezarritakoa: "Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailtako eta beren erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendek dakartzaten berariazko osagarrien kopuruak, egun indarrean daudenak, aldatu egiten dira, era berean ondorioak 1991. urteko urtarrilaren 1etik hasita izanik, IV. Eranskineko baliokidetasun-taularen arabera". Hots, baliokidetasun-taularen arabera aldatzen direla zenbatekoak.

Ordainsariak aldatzeko hurrengo dekretuak (abenduaren 22ko 343/1992 Dekretua) 1992koak ezarri eta hasierakoaren 6. artikulua aldatzen du, hain zuzen ere berariazko osagarria araupetzen duena, hain zuzen ere, betiere osagarri horretako baldintzei eutsita, mugak aldatzeko eta, gainera, hauxe xedatzeko: euskal administrazio publiko bakoitzak berariazko osagarria ezartzeko baldintzak finkatuko ditu, administrazio publiko bakoitzeko lanpostuen zerrendetan bildu beharrekoa.

Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen ordainsariei buruzko abenduaren 20ko 333/1993 Dekretuak, abenduaren 19ko 516/1995 Dekretuak eta azaroaren 19ko 267/1996 Dekretuak, hurrenez hurren, berriz aldatzen dituzte ordainsariaren kontzeptuen zenbatekoak eta gehieneko mugak, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetarako berariazko osagarriari dagokionez, baliokidetasun-taulara jotzen du aldaketa egiteko.



Bestalde, 1998rako araudiak, abenduaren 15eko 370/1998 Dekretuaren bidez, banaketa berdinari eusten dio, baina Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrerako eta bere erakunde autonomoetarako baliokidetasun-taula kentzen du.

1993rako, 1995erako, 1996rako dekretu guztiak nahiz 1998rako dekretuak honelako xedapen gehigarria dute: “Dekretu hau aplikatzeak ez dakar berekin, inola ere, ezarriko ziratekeen guztizko ordainsariak aldatzea, eta indarrean jarraituko dute dekretua indarrean sartzean, halako moldez non, ordainsari osagarriak Dekretu honetako eranskinen arabera eguneratzeari esker, honako hau ahalbidetuko baitu: eraginpeko pertsonalak sortu beharreko guztizko ordainsariak bat etortzea arauaren hartzaileak diren Euskal Administrazio Publikoetan ezarritakoekin”.

Xedapen gehigarri hori 1992rako dekretuko hirugarrena da; izan ere, lanpostuen lehen zerrendak onetsi eta argitaratu behar zirela adierazita, hain zuzen ere dekretuan bildutako aurreikuspenak eta bestelakoak aintzat hartu beharrekoak lanpostuen sailkapenetatik igarotzeko, hauxe zioen: “Dekretu hau aplikatzeak ez dakar berekin, inolaz ere, ezarriko ziratekeen eta dekretua indarrean sartzen indarrean zeuden guztizko ordainsariak aldatzea. Horren ondorioz, aurreko xedapenetan bildutakoak bete ondoren, bidezkoa da nominak egokitzea Dekretu honetako eranskinetan ezarritako zenbatekoen arabera eta, beharrezkoa bada, ordainsari osagarriak egokitu, zertarako-eta eraginpeko pertsonalak sorrarazitako guztizko ordainsariak bat etortzeko arauaren hartzaileak diren euskal administrazio publikoetan ezarritakoekin”.

1999an, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsarien dekretua bigarrenez aldatzeko eta urte horretako ordainsariak ezartzeko abenduaren 28ko 452/1999 Dekretuak erregulazioa desberdina xedatu du, halako moldez non, indargabetzearen bidez berariazko osagarriko zenbatekoan gehienekoak ordainsarien dekretuko 6. artikuluko bigarren ataletik kentzeaz gain, hauxe ezarri baitu bigarren artikuluan: “Lanpostu bakoitzari dagokion berariazko osagarriak, 1999an, %1,8ko gehikuntza izango du, 1998koen aldean; eta hori horrela da, hala dagokienez, Euskal Administrazio Publikoen eremuan, zailtasun tekniko, dedikazio, erantzukizun, nekagarritasun edo arrisku maila beretsuko funtzioak ordaintzeko ezarrita daudenekin bidezko erlazioa daukaten lanpostuei dagozkienak egokitzeko aukeraren kaltetan gabe”.

Baina, hauxe dio jarraian gainera haren Xedapen Gehigarri Bakarrak: “Dekretu honen ezarpenak ez du inolaz ere ekarriko kontzeptu ezberdinengatik jasotzen diren ordainsarien gutxitzea. Alderik bada, berariazko osagarriari egotziko zaio”.

Euskal administrazio publikoetarako ordainsariei buruzko azken dekretua da, zeren eta ondoren apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua onetsi baitzen 2005ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsariei buruzko araudira mugatzen dena.

Estatuko 2007rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen 21.4. artikuluan, 2010ean bukatu zen serie bat abiarazi zen, non honako hau ezartzen baitzen: “Artikulu honetako Bi atalean ezarritakoaz gain, 100eko 1eko igoera izango dute Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1994 Legearen ordainsarien erregimena aplikatzearen ondorioz jardunean diren funtzionarioen soldatek,



baita administrazio eta estatu erregimenaren menpeko gainerako langileen soldatek ere, berariazko osagarria edo kontzeptu egokia handitzeko erabiliko dena, hain zuzen ondorengo ekitaldietan osagarri horiek egokitzeko. Horri esker, 14 pagatan jasoko dituzte urtean, hamabi arruntetan eta aparteko bi pagatan ekainean eta abenduan”.

Aurreko urteetan, berriz, antzeko aurreikuspenak izan ziren destino osagarriari dagokionez, harik eta aparteko pagetan %100 bihurtu zen arte.

Horrez gain, eta betiere berariazko osagarriari dagokionez, hauxe dio hitzez hitz Funtzio Publikorako Estatu Idazkaritzak 2010-2012ko elkarrizketa sozialaren baitan Gobernuak eta Sindikatuek funtzio publikorako lortutako akordioa argitaratzeko 2009ko urriaren 22an emandako ebazpenak dakarren akordioko 48. atalak: “Aurretik esandako igoerez gain, lortutako akordio ekonomikoak beteko direla bermatzen da, 2010-2012 aldian aplikatu beharrekoak. Horregatik, administrazio publikoek beren eskumenen baitan aurretik sinaturiko itunetan edo akordioetan lorturiko soldata hobekuntzetatik aparte aplikatuko dira ordainsarien aurreko igoerak, horien artean berariazko osagarri osoa aparteko pagetan sartzekoak barne”.

Horrenbestez, egiaztaturik gelditzen da estatu mailako nahiz EAE mailako araudiaren ikuspuntutik BFAk eta GUFEk aplikaturiko igoerak ez dakarrela aldaketarik funtzio publikoari buruzko araudian ezarritako berariazko osagarriaren izaeran.

*3. Azpiegiturak, S.A.M.P.-k, errelebo-kontratu batetik zetorren aldi baterako kontratu bat mugagabe bihurtu du, hautaketa-prozesurik gabe, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipioak bete gabe.*

### **AZPIEGITURAK, S.A.M.P.-REN ALEGAZIOA**

Mugagabe bihurtutako kontratua Sozietatean errelebo-kontratua zuen pertsona batena da.

Pertsona hori 2009. urtean sartu zen Azpiegiturak sozietatean, hautaketa-prozesu bat gaindituta. Hor, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipio guztiak errespetatu ziren: berdintasuna, meritua, gaitasuna eta gardentasuna.

Harrezkero, osotasunez, arduraz eta exenplaritatez bete ditu eginkizunak.

Errelebo-kontratua ekartzen zuen xedea amaituta (ordezkatutako pertsonaren behin betiko erretiroa), Azpiegiturak-en zuen lanpostua mantendu behar zenez, lan hori azken urteetan egin zuen pertsona berak egiten jarraitzea komenigarria zela erabaki zen.

*4. BizkaiKOA EPEF-k erregularizazio bateratuaren mendeko kontratuen prozedura eta publizitate arauei jarraitu beharko lieke 410.387 euroko (BEZA barne) adjudikazio-zenbatekoa zuten lokal edota eraikinen garbiketa-zerbitzuaren lizitazioan (ikusitako A.7.3. 1. espedienteak).*





## BIZKAIKOAREN ALEGAZIOAK

Kasu honetan jarraitu ziren prozedura eta publizitate-arauak erregularizazio bateratuari atxikita ez dagoen kontratu bati buruzkoak izan baziren ere, BizkaiKOA EPEF erakundearen aholkulari juridikoaren iritziz, II. eranskineko 1-16 kategorietan barne hartuta ez zegoelako, ados gaude Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin (HKEP) dionean kontratu horrek, erregularizazio bateratuari atxikitako kontratuen prozedura eta publizitate arauari jarraitu beharko liekeela. Dena den, alderdi hori dagoeneko konpondu dugu BizkaiKOA erakundeak egindako mota bereko kontratazio berrietan.

*5. BizkaiKOA EPEF-k publikoaren arretarako zerbitzua kontratatu du Ondare eta Rekalde aretoetan (104.922 euro, BEZa barne); Bizkaiko Basalan, S.A.-k, erregaiaren hornidura, (292.261 euro, BEZa barne); Garbiker M.P.A.B-k (SAU), pneumatiko eta banden hornidura eta makinen konponketa (159.950 eta 130.726 euro, BEZa barne, hurrenez hurren), eta Seed Capital de Bizkaia SGEITC, S.A.-k, prozesuen automatizaziorako zerbitzuak estranet berriaren bidez (75.587 euro, BEZa barne), publizitate eta lehia printzipioak errespetatu gabe.*

## BIZKAIKOAREN ALEGAZIOA

Aurreikusi ez diren zenbait gertaerek aparteko egoera eragin zuten. Horrez gain, denbora gehiegi igaro zen erabakiak hartzeko. Horrenbestez, zuzenean kontratatu behar genuen Rekalde eta Ondare aretoetako publikoaren arretarako zerbitzua. Ados gaude HKEPrekin, hots, erabilitako kontratazio-prozedura ez zela egokiena izan, eta alderdi hori jadanik kontratu horien adjudikazioa arautzen duen lehiaketa berrian zuzendu genuen.

## BASALANEN ALEGAZIOAK

Bizkaiko Lurraldeko gasolindegietan bereizitako jarduketak dira, gure langileen gasolina-beharren arabera.

Hala ere, 2018ko ekitaldi honetan bertan, Basalan-ek 2019., 2020., 2021. eta 2022. ekitaldietarako erregai-hornidura kontratatzeko irekitako prozeduran parte hartu du, Bizkaiko Foru Aldundiaren erosketa-zentralaren bidez egindakoa.

Prozedura gorabeherarik amaitu zen, eta, beraz, adjudikaziodun berria 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera jada Basalan-erako erregai-hornitzaile berria izaten ari da. Hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren esparru-akordioaren barruan, Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriaren legezketasuna betez.



## GARBIKER-EN ALEGAZIOA

### 3. Pneumatikoen eta banden hornidura

Nahiz eta saldoa 160 mila eurokoa izan, bi enpresa hornitzaile desberdinen 26 fakturari dagokie, Garbiker-en ibilgailuen parkeko eduki desberdinekoak eta ibilgailu desberdinekoak; gehienak ezinbestekoak dira ekitaldia hasteko.

Horietatik guztietatik, ezin da inola ere gainditu banaka 15 milioi euroko zenbatekoa (BEZik gabe), eta bi kasutan bakarrik gainditzen du 10 milioi euroko zenbatekoa (BEZik gabe).

2017ko abenduaren leian geure interesa agertu genuen BFAko erosketa-zentralean, lizitazio-prozesuan zegoen pneumatikoak hornitzeko esparru akordioari atxikitze, beraz, prozesu horrek Garbiker-ek egin behar zuena ordezkatzeko zuela uste genuen. Izan ere, atxikitze formala 2019. urterako gertatu zen, eta orduan zerbitzua ematen hasi zen.

### 4. Makineria konpontzea

Nahiz eta saldoa 130 mila eurokoa izan, makina desberdinen 121 fakturari dagokie, eduki desberdinekoak eta makineria desberdinekoak; gehienak ezinbestekoak dira ekitaldia hasteko.

Horietatik guztietatik, faktura bat bakarrik da 15 milioi euro (BEZik gabe) baino handiagoa, eta 16 makinatan egindako konponketak barne hartzen ditu.

Gainerako zenbatekoetatik, bat bakarrik da 5 milioi euro baino handiagoa, eta 108, 2 milioi euro baino txikiagoak dira.

*6. BOSek 143.277 euroan gainditu du, BEZa barne, (% 41,61) inongo aldaketarik onartu gabe publizitate zerbitzuko kontratuan aurreikusitako 2018ko urtekoa, zeina 2017an esleitu zen 1,4 milioi euroren zenbatekoan eta 4 urteko egikaritza epearekin.*

## BOSEN ALEGAZIOA

1) Hala da, BOSek publizitate-zerbitzuaren kontratuan 2018. urterako ezarritako kopurua gainditu du.

Zehaztu beharra dago BOSek ez duela funtsezko ezer aldatu kontratuan, ez eta beraren xedea ere. Izan ere, BOSek gehiago gastatu du publizitatean gizartean daukan eragina hobetu eta emanaldietara biltzen diren pertsonen kopurua gehitu nahian, besterik ez.

2) Jarraian zenbait gogoeta egingo ditugu aipatu den kopuruaz:

Hemendik aurrera kopuru guztiak BEZ gabe izango dira.

Uste dugu aurreko kopurutik zenbait gastu kendu behar direla, lizitazioa arautzen duen dokumentazioan aurreikusi gabeko aldaketak baitira, SPKLTBren 107. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.





Hain zuzen ere, publizitate-gastu hauez ari gara (13.477 euro guztira):

- OPPI digitalak Metroan.
- OPPIak Bizkaibusen.
- Publizitate-euskarriak kale-argietan.

Fakturak erantsi ditugu gastuak frogatzeko. (I. Eranskina)

Gastu horiek publizitatearen eragina asko handitzen duten aurrerapen teknikoetan egin dira, eta ez ziren kontuan eduki kontratua adjudikatu baino lehen. Aldaketa horiek ez dituzte funtsean aldatzen kontratuaren lizitazioa eta adjudikazioa, guztirako kopura ez baita heltzen kontratuaren adjudikazio-prezioaren ehuneko 10era.

3) Horrenbestez, gure iritziz BOSeK publizitate-zerbitzuaren kontratuan 2018. urterako ezarritako kopurua baino 104.933 euro gehiago gastatu ditu, hau da, %36,10 gehiago.

*7. Urkiola, Gorbeia eta Armañongo interpretazio-zentroetako Ingurumen-hezkuntzako eta bisitariak hartzeko jarduera-zerbitzuak, BFAk adjudikatutakoak; outsourcing bidezko hardware kontratuak, Aparkabisak adjudikatutakoak eta ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko zerbitzua emateko esparru akordioak, Garbiker, MPAB (SAU) enpresaren automobil-parkeari atxikitakoak, gauzatzen jarraitu dute, kontratuaren epea 2018ko urriaren 17an, 2018ko apirilaren 30ean eta 2016ko abuztuaren 31n amaitu zen arren. 2018an gauzatzea 103.666, 67.933 eta 618.086 euro gauzatu dira hurrenez hurren, BEZa barne.*

## **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA**

- INGURUMEN-HEZKUNTZAKO JARDUERAK EGITEKO ETA BISITARIAK HARTZEKO ZERBITZUA EMATEA URKIOLA, GORBEIA ETA ARMAÑONGO INTERPRETAZIO ZENTROETAN (2012/003/072/09).

Espedientean jasotzen den moduan, izapidetzearenak ez diren inguruabarrek, dagokion kontratua gauzatzeko epea amaitutakoan beste kontratu bat gauzatzen hastea eragotzi zuten.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak ezarritakoaren arabera, publikoaren arretarako eta ingurumen hezkuntzako zerbitzua emateari uzten bazaio Urkiola, Gorbeia eta Armañon Parke Naturaletako interpretazio-zentroetan, kalte handia egingo litzaieke zenbait erabiltzailerri, ikasleei batik bat, erreserbak berretsita.

Horrela, aipatutako zerbitzua ematea beharrezkotzat jo zen, besteak beste, talde jakin baten, hots, ikastetxeen eskubideei erantzuteko. Izan ere, zerbitzu hori erregularra denez, emandako programa didaktikoen edukiak barne hartu zituzten ikastetxeek, beraien irakaskuntza-programetan. Hezkuntza, eta eskolako irakaskuntza zehazkiago, ezinbestekoa da herritarrek ingurumenaren zainketaren aurrean duten jarreran.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Horretan guztian oinarrituz, interes publikoko arrazoi objektiboak zeudela ondorioztatu zen, zerbitzuaren ematean jarraitutasuna bermatzen duen ebazpen bat hartzeko, zerbitzuen kontratu berria lizitatzeko prozeduran amaitutakoan.

Horregatik, Diputatu Nagusiaren urriaren 16ko 164/2018 Foru Dekretuaren bidez, INGURUMEN HEZKUNTZAKO JARDUERAK EGITEKO ETA BISITARIAK HARTZEKO ZERBITZUA EMATEA URKIOLA, GORBEIA ETA ARMAÑONGO INTERPRETAZIO ZENTROETAN izeneko kontratuaren jarraitutasuna eta ORTZADAR, S.L. sozietateak (IFZ: B-48457808) ematea onartu zuten, zerbitzua ematen hasi arte, beste kontratu baten babespean, indarreko baldintzen arabera.

### GARBIKER-EN ALEGAZIOA

2018. urtean zehar, Bizkaiko Foru Aldundiaren erosketa-zentralak zerbitzu horiek barne hartzeko lizitazioa prestatzea aurreikusten zenez, lanak aurreko kontratuaren adjudikaziodun berdinei eskatu zizkieten.

Horrela, 2018ko maiatzaren 2an, esparru-akordio hori aurrera eramaterik ez zegoela jakinarazi zuten hainbat zioengatik hala nola ibilgailu mota desberdinak, kokapen geografikoa, etab.

Horregatik, sozietateak berak berariazko lizitazioa prestatzea aurreikusita zegoen, ziur asko, 2019an egitekoa.

Hala ere, 2019ko ekitaldian Garbiker enpresak finantza-inbertsio iraunkorreko aparteko partida bat eskuratu zuen, eta urte amaieran. Horren ondorioz, zenbait lizitazio-prozesu argitaratu dira, ibilgailu eta makina berriak erosteko.

Lizitazio horiek, Garbiker-en ibilgailu eta makinaren ia parke osoa berritzeko aukera emango dute. Halaber, haien barruan, konponketa eta mantentze-lanekin lotutako errekerimenduak ere barne hartu dira, lizitazio-prezioan ere barne hartuta daudenak.

### **III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO ONDORIOAK**

#### **III.1 AURREKONTUA, KONTU OROKORRA ETA KONTABILITATEA**

*1. Seed Bizkaiko Kapitala Mikro SCRPSak, Azkue Fundazioak, Biscaytik Fundazioak eta BOSeK gairiditu egin dituzte “Langileen gastuak”, “Kanpoko zerbitzuak” eta “Inbertsio finantzarioak” kontu-sailetako aurrekontuko zuzkidurak, aurrekontuko aldaketarik onartu gabe.*



## BISCAYTIK FUNDAZIOAREN ALEGAZIOA

Aurrekontuaren aldaketa Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren 2018ko abenduaren 18ko 2108. zenbakiko Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Agindua alegazioari erantsi zaio. (II.Eranskina)

Bertan azaltzen den bezala, langileen gastuen partidari 26.052,00 euro gehitu zitzaizkion, kanpoko zerbitzuen partidatik kenduta.

BLHko Aurrekontuei buruzko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onesten duen 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak 83.2) artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz, langileen gastuen eta kanpoko zerbitzuen partidetakopuruak gehienekoak dira.

5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak 88.2 artikuluan ezartzen du Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak daukala eskumena gehieneko zuzkidurak aldatzeko baimena emateko.

Baimena emateko prozedurako lehen urratsa da Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko titularrak (Biscaytik Fundazioaren lehendakaria denak) eskaera aurkeztea.

Beraz, Biscaytik Fundazioak ondo bete du legez ezarritako prozedura: aurrekontuan ezarritako gehieneko zuzkidurak aldatzeko baimena eskatu du, organo eskudunak onespena eman dezan.

### **III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO ONDORIOAK**

#### **III.2 KONTRATAZIOA**

*2. BFAk bi obra-kontratu adjudikatu ditu zenbait jarduketa-eremutan zoruak leheneratzeko, 1,8 milioi euroren truke. Lizitazioa bi prozedura ireki desberdinen bidez egin da, beraz, BFAREN justifikazio teknikoaren kontrakoa esaten du, kontratuetan loteak ez erabiltzeko (ikus A.7.1, 1. eta 2. espedienteak).*

### **HERRI ADMINISTRAZIOARAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ETA AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILAREN ALEGAZIOA**

- 4 KONTSERBAZIO EREMUE TAN ZORUAK LEHENERATZEA (2018/022/073/08)
- 3 KONTSERBAZIO-EREMUTAKO ZORUAK BIRSORTZEKO PROIEKTUA. BIGARREN JARDUKETA (2018/028/073/08)

Akats horri erantzuteko, kontratuaren sustatzaileak zera jakinarazi du:

“AKBPn justifikatuta dago, eta zehazki, hauxe adierazten zen:

“...AC. Kontratua lotetan banatzea. Ez dagokio.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

SPKLren 99.3b. artikulua ezarritakoaren arabera, kontratua loteka banatzea agian ez da nahitaezkoa izango, betiere kontratuaren xedean barne hartzen diren prestazioak (nahaste bituminosoak hedatzea eta trinkotzea) modu independentean egiteak ikuspegi teknikotik zuzen gauzatzea zailtzen badu.

Hain zuzen ere, kontratuaren xedean barne hartzen diren lanak modu independentean egiteak arriskua ekarri luke haien azken kalitatean, izan ere, erabilitako materialak (harrobiko eta altzairutegiko agregatuak), eta gauzatzeko erabilitako teknikak berberak izan behar dute guztietan. Hori, praktikan, ezinezkoa da kontratista desberdinek gauzatzen badituzte.

Halaber, kontratuaren xedean barne hartutako prestazioak (nahaste bituminosoak hedatzea eta trinkotzea) gauzatzean koordinatzea ezinbestekoa da, bai egikaritze fasean (epeak, ibilgailuen trafikoaren eragina txikiagotzeko eta bide-segurtasuna babesteko), bai amaitutako unitatearen kalitate-kontrolerako fasean (kontratuaren xedean barne hartzen diren prestazio guztien amaitutako unitatearen kalitate-kontrola tresna berarekin egin behar direlako, oso zaila dena erabiltzea, eta beraz, egun berean)...".

*4. BFAk 773.829 euroren truke adjudikatutako obra-kontratu baten AKBPn eskatutako sailkapena, kontratuaren balioari erreparatuz egokituko litzaiokeena baino handiagoa da (ikus A.7.1, 2. espedientea).*

## **HERRI ADMINISTRAZIO-ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA**

- 3 KONTSERBAZIO-EREMUTAKO ZORUAK BIRSORTZEKO PROIEKTUA. BIGARREN JARDUKETA (2018/028/073/08)

Hain zuzen ere, AKBPn akatsa da unitate sustatzaileak bidalitako justifikazio-memoriak gaizki zehaztuta zuelako eskatutako kategoria, eta ez zen egiaztatu. Hori horrela, proiektuaren dokumentazioan adierazitako sailkapena, maila txikiago batekoa bazen ere, ez zen zuzena. Kategoria zuzenak beste bat izan beharko luke.

*5. AKBPn erabilitako formulak, Azpiegiturak S.A.M.P.-k 2 milioi euroren truke adjudikatutako zerbitzuen kontratu baten prezioaren irizpidea baloratzeko, ez dio gehieneko puntuaziorik ematen eskusiboki eskaintzarik merkeenari (ikus A.7.3, 4. espedientea).*

## **AZPIEGITURAK, S.A.M.P.-REN ALEGAZIOA**

Lizitazio honetan, puntuaziorik handiena emango zaio batez besteko txikiena baino ehuneko zazpi txikiagoa den eskaintzari. Ehuneko hamar baino gehiago txikiagoa bada batez besteko bajarekiko, anormalki baxutzat hartuko dira, beraz, ez dira baloratuko. Horrenbestez, formulak puntuaziorik handiena ematen dio onartutako eskaintzarik merkeenari.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

6. *Garbiker, M.P.A.B. (S.A.U.) 8,6 milioi euroan esleituriko bi obra kontraturen AKBPn ezarritako esleipen-irizpideen artean, hobekuntzen atala dago sartuta, baina ez da zehazten zein osagaitan eta zein baldintzatan aurkeztu daitezkeen (ikus A.7.3 10 eta 11 espedienteak).*

## GARBIKER-EN ALEGAZIOA

10. Garbiker AB SAK kudeatutako ontzi arinen gaikako bilketa zerbitzuari dagozkion edukiontzien garbiketa zerbitzua.

11. Artigas-ek kontrolatutako gordailuaren eta lixibiatuak tratatzeko fabrikaren eragiketa eta mantentze zerbitzu kontrolatua.

Lehen lizitazioari dagokionez, plegu nagusien karatulan, "G2-AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK-C GUTUN-AZALA" izeneko atalean balorazio-irizpide hau ezartzen da:

“2. Eskaintza hobetzen duten beste prestazio edo aukera batzuk:

- Garbiker AB SA enpresarako balio-zerbitzu gehigarriak, proposatutako edukien garbiketa-zerbitzuak ematean egindakoak (3 puntu).
- ISO eta KALITATE ziurtagiriak (2 puntu)".

Karatulan jasotzen den moduan, dagozkion egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu dagokion balorazioa egin ahal izateko.

Bigarren lizitazioari dagokionez, plegu nagusien karatulan, "G.2-AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK-C GUTUN-AZALA" izeneko atalean balorazio-irizpide hau ezartzen da:

“3. HOBEKUNTZAK:

- Berriazko hobekuntzak baliabide teknikoetan eta prozesuetan lixibiatuen fabrikan: 3 puntu
- Berriazko hobekuntzak baliabide teknikoetan eta prozesuetan zabortegian: 3 puntu".

Karatulan jasotzen den moduan, dagozkion egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu dagokion balorazioa egin ahal izateko.

Bi lizitazioei dagokienez:

- Lizitazioen interesdunek eta lizitatzailleek ez zuten hobetzeko atal horien gaineko argibiderik eskatu.
- Irizpideak, berez, formulazioan bertan, lizitazio bakoitzaren xedeari hertsiki lotuta daude.
  - o Lehen lizitazioan, garbiketa-zerbitzua denez, lehendabizi ematean balioa sortzen duten zerbitzu gehigarrien ematea baloratu beharko da, bigarrenaz, hobekuntzak baloratuko dira edukiontzien garbiketan.
  - o Bigarren lizitazioan, eragiketa eta mantentze zerbitzua denez, bi fabriken baliabide teknikoetan eta prozesuen hobekuntzak plegu teknikoetan jada ezarritako prozesuen



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

premisei buruzkoetan, zehazki 4. atalean: "Artigasko zabortegiaren eragiketaren oinarritzko ezaugarriak".

Horregatik guztiagatik, gure ustez, irizpide hauek behar bezala eginda daude, dagozkion hobekuntzak formulatzeko beharrezkoak diren elementu eta baldintzak zehaztuz.

*7. Bost kontraturen eta zazpi esparru akordioaren AKPBen karatula, BFAk 13,5 eta 24,4 milioi euroren truke adjudikatutakoak hurrenez hurren, ez dituzte adierazten anormalki baxuak diren eskaintzak identifikatzeko parametro objektiboak, agirietan jasotzen den moduan (ikus A.7.1 espedienteak, 2, 3, 4, 12, 13, 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 22).*

### **HERRI ADMINISTRAZIO-ERAKUNDE HARREMANETARAKO, AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPEN SAILAK ETA GIZARTE EKINTZA SAILAREN ALEGAZIOAK.**

- 3 KONTSERBAZIO-EREMUTAKO ZORUAK BIRSORTZEKO PROIEKTUA. BIGARREN JARDUKETA (2018/028/073/08)

### **HERRI ADMINISTRAZIO-ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA**

Aipatutako akatsez ez zirenez jabetu, anormalki baxuak ziren eskaintzak identifikatzeko parametro objektiborik adierazi gabe argitaratu zen AKPB.

### **AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILAREN ALEGAZIOA**

Uste dugu ezen, berariaz aipatu ezean, alderdi hau arautzen duen legeria aplikatu beharrekoa dela.

- LAGUNTZA TEKNIKOKO PROGRAMAREN GARAPENA, BIZKAIAN MENDE-TASUN GRADUA ONARTZEA ESKATZEN DUTEN PERTSONAK BALORATZEKO ETA ORIENTATZEKO PROZEDURAN, ETA HAREN BANAKAKO ARRETA PROGRAMEN GARAPENAREN JARRAIPENEAN (2018/004/071/03).

- HAURREN BAT BABESIK GABE DAGOEN FAMILIETAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA BEREZIA (2018/024/071/03)

a) Mendekotasun gradu-eskaintzaileen balorazioa eta orientazioa eta BAPen garapenaren jarraipena.

Kontratuaren AKPBk anormalki baxua den eskaintza kontuan hartzeko kontuan hartu beharko diren balioak adierazten ez baditu ere, hori ezin da inola ere izan akats bat, izan ere,



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

SPKLTBren 152.2. artikulua arabera -orduan kontratuaren arau gidaria zena, orain arrazoituko dugun moduan-, ezartzea HAUTAZKOA zelako, eta ez nahitaezkoa.

Hain zuzen ere, "Laguntza teknikoko programa, Bizkaian mendekotasun gradua onartzea eskatzen duten pertsonak baloratzeko eta orientatzeko prozeduran, eta haren banakako arreta programaren garapena jarraipena" izeneko kontratuaren AKPBn, 1.1. klausulan, kontratuaren araubide juridikoa zehazten da, eta c) letran ezartzen du hura arautzen duen araua 2011ko Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina dela.

Horrenbestez, Foru Aldundiaren hasierako prozeduraren eta lizitazioaren deialdiaren erabakia 2018ko otsailaren 6koa denez (eta beraz, SPKL berria indarrean sartu aurretik), aipatutako kontratuak SPKLren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, aurreko arautegiari jarraitzen dio, hau da, SPKLTBri.

SPKLTBren 152. artikulua balio anormalak eta neurrigabeak dituzten eskaintzen araubide juridikoa erregulatzen du, eta bigarren atalean hauxe ezartzen du:

2. Kontratua esleitzeko balorazio-irizpide bat baino gehiago hartu behar bada kontuan, klausula-agirietan adierazi ahal izango da zein parametro objektiboren arabera joko den, hala dagokionean, proposamenak ezin direla bete balio neurrigabeak edo anormalak izateagatik. Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabiliko den irizpide objektiboetako bat eskaintako prezioa bada, administrazio-klausula zehatzen agirian zehaztu ahal izango da zein kopururen arabera joko den, hala dagokionean, proposamena ezin izango dela bete eskaintzak neurrigabeak edo anormalak izateagatik.

2017ko SPKL berriarekin (2018ko martxoaren 9tik indarrean dagoena, baina kontratuan ezin dela aplikatu), erregulazioa arlo jakin horretan aldatu da, eta parametro objektibo horien zehazpena NAHITAEZKOA da, 149. artikuluan, b letran ezarritakoaren arabera:

b) Hainbat adjudikazio-irizpide erabiltzen direnean, kontratua arautzen duten agiriei jarraituko zaie. Hor, eskaintza bat anormaltzat hartzeko kasuak identifikatzeko parametro objektiboak ezarri behar dira, osotasunean kontuan hartutako eskaintzari buruzkoak direnak.

Agian horregatik gertatu da akatsa HKEPren hautematean. Gure ustez, behar bezala argituta geratu da, alegazio hauen bidez.

b) Familia esku-hartze programa haurren babesgabetasun kasuetan.

Kontratuaren AKPBk anormalki baxua den eskaintza kontuan hartzeko kontuan hartu beharko diren balioak adierazten ez baditu ere, hori ezin da inola ere izan akats bat, izan ere, SPKLTBren 152.2. artikulua arabera -orduan kontratuaren arau gidaria zena, orain arrazoituko dugun moduan-, ezartzea HAUTAZKOA zelako, eta ez nahitaezkoa.

Hain zuzen, "Familia esku-hartze programa espezializaturia, haurren babesgabetasun kasuetan, 2018-2020" izeneko kontratuaren AKPBren arabera, 1.1. klausulan, kontratuaren araubide juridikoa ezartzen da. Horrela, c) letrak ezartzen du hura zuzentzen duen araua 2011ko Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina dela.

Horrenbestez, Foru Aldundiaren hasierako prozeduraren eta lizitazioaren deialdiaren erabakia 2018ko otsailaren 6koa denez (eta beraz, SPKL berria indarrean sartu aurretik),





aipaturiko kontratuak SPKLren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, aurreko arautegiari jarraitzen dio, hau da, SPKLTBri.

Kasu honetarako, lehen kontratuan adierazitakoa balioko du.

- HOGEITA HAMAIKA (31) LUR OROTAKO IBILGAILU BERRI HORNITZEA, "PICK-UP" MOTAKOAK, BFA-REN IBILGAILUEN PARKERAKO, 2018. 2 LOTE. (2018/002/072/07)
- ESKAILERA AUTOMATIKODUN IBILGAILU BAT ESKURATZEA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN PREBENTZIO, SU ITZALTZE ETA SALBAMENDU ZERBITZURAKO. (2018/005/072/07)
- GAS NATURALA, 2018. ETA 2019. URTEAK (2017/009/074/07)
- ZELULOSA, ESKULARRUAK, HIGIENE MATERIALA ETA GARBIKETA PRODUKTUAK EROSTEA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN SAILETARAKO ETA ATXIKITAKO ERAKUNDEETARAKO, 2018. ETA 2019. URTEETAN. 4 lote. (2017/008/074/07)

Gabezia horri erantzunez, kontuan hartu behar da kontratuei nahiz azterturiko esparru-akordioei aplikatu beharreko araudia azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua dela, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onetsi duena, kontratuen deialdia argitaratzean indarrean zegoena.

SPKLTBren 152. artikuluan, pleguan, anormalki baxuak diren eskaintzak identifikatzeko aukera ematen duten parametro objektiboak ezar daitezkeela jasotzen da.

Hori oinarri hartuta, kontratazio organoaren eskumena eta erabakimena da pleguetan sartzea eskaintza batek ustez ezaugarri anormalen bat duela zehaztu ahala izatea eta, beraz, ez da nahitaezkoa pleguetan ezartzea, aipaturiko manua aplikatuz.

- ENPRESA HORNITZAILEAK HOMOLOGATZEKO ESPARRU AKORDIOA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN IBILGAILUEN FLOTA MANTENTZEKO ETA KONPONTZEKO ZERBITZURAKO (2018/004/074/07).
- ESPARRU AKORDIOA ENPRESA HORNITZAILEAK HOMOLOGATZEKO, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN IBILGAILUETARAKO ORDEZKO PIEZAK ETA MATERIALAK HORNITZEKO. 2 lote. (2018/005/074/07)
- IGOTZEKO GAILUAK ETA ESKAILERA MEKANIKOAK MANTENTZEA, 2019. ETA 2020. URTEAK. 2 lote. (2018/003/074/07)
- ERREGAIK HORNITZEA, 2019. URTETIK 2022. URTERA (2018/001/074/07)
- PNEUMATIKOAK HORNITZEA ETA INSTALATZEA, 2019. URTETIK 2022. URTERA (2018/001/074/07)

Esparru akordio hauetan, funtsezko ezaugarria da ez dagoela erreferentziako gehieneko edo gutxieneko unitateko preziorik. Halaber, prezioa denboran zehar aldatzen da, produktuen berezitasunengatik, edo enpresa lizitatuzaileen eskaintzak deskontuen bidez egiten dira. Hori dela eta, ezin da ezarri jaitzietaren parametro objektiborik.





Adibidez: erregaiaren hornidura egunaren, markaren eta hornidura-puntuaren arabera aldatzen da. Material suntsikorraren kasuan, emango den materiala oso zabala eta askotarikoa da.

*8. Lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazio orokorraren irekitzea eta kalifikazioa, eta BizkaiKOA EPEFk 410.387 euroren truke adjudikatutako zerbitzuen kontratu baten proposamen teknikoak dituen gutun-azalaren irekitzea, ez du kontratazio-organoak egin, agirietan jasotzen den moduan (ikusit A.7.3., 1. espediente).*

## BIZKAIKOAREN ALEGAZIOA

Enuntziatuan aipatzen den lehiaketaren administrazio-agiriaren xedapenetan, eta zehazkiago hamargarren klausulan, kontratazio-organoak, administrazio-kontseiluak kasu honetan, A gutun-azala (administrazioko dokumentazioa), B gutun-azala (proposamen ekonomikoa) eta C gutun-azala (proposamen teknikoa) ireki behar zituela ezartzen zen bazen ere, administrazio-agiriaren klausulen xedapen horren ustez, A eta C gutun-azalak, haien izaera dela eta, kontratazio-organoaren "babesa" ezartzen duen xedapen bat gisa hartu da, baina ez du loturarik gutun-azal horiek "fisikoki" irekitzearekin, eraginkortasun handiagoa izan dezan eta administrazio-kontseiluak hartutako erabakiak eta xedapenak betetzeko administrazio-gertaera gisa hartuz, Gerentziak egiten du, BizkaiKOA EPEF erakundearen beraren administrazio-zerbitzuen laguntzarekin, Erakundearen estatutuek ezarritakoaren arabera. Estatutu horiek abenduaren 22ko 5/2010 Foru Arauan, eta zehazki, 17. artikuluan jasotzen dira, eta Gerentziarekin ezartzen eden eskuordetzea ere jasotzen da. Gaineratu behar dugu, prozesu osoan, Gerentziaren lana eta administrazio-zerbitzuen laguntza, gutun-azalen irekitzearekin eta kontratazio-organora eramatearekin bakarrik lotuta daudela.

Ez da horrela gertatzen B gutun-azala irekitzean (proposamen ekonomikoa), haren izaerak irekitze fisiko eta saio publikoan egitea gomendatzen duena. Prozesu hori kontratazio-organoak gauzatzen du.

Kontratazio-organoak, erakundeko administrazio-kontseiluak kasu honetan, lehiaketara aurkeztutako proposamenak baloratzeko eta kontuan hartzeko geroagoko bileretan (gogoratu behar dugu kontratazio organoa bitan bildu zela, martxoaren 12an eta 26an, lehiaketa honen prozesuaren barruan eztabaidatzeko), ez zuen iruzkinik egin horren inguruan, eta proposamenen edukiei buruz bakarrik hitz egin zuen. Horrela, prozesuaren nolabaiteko tutoretza egin zuen, eta organo horrek izandako azken emaitzari buruzko erabakia hartu zuen, operatiboagoak ziren jarduketetan sartu gabe, esaterako, administrazioko agiriak bakarrik dituzten gutun-azalak irekitzea.

*10. Ez da eskatu zerbitzuen kontratu batean aurkeztutako eskaintza bakarraren justifikazioa, BFAk 544.029 euroren truke adjudikatutakoa, AKPBren arabera, anormalki baxutzat har zitekeen arren (ikusit A.7.1. 6. espediente, 2. lote).*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

- BIZKAIERAREN ETA EUSKARA BATUAREN CORPUS ESTANDARRA EGITEA, ERAKUNDEKO ADMINISTRAZIO HIZKUNTZAREN EREDU ERREFERENTZIALA EZARTZEKO, HIZTEGIAREN ETA GRAMATIKAREN IKUSPEGITIK, BFA-K SORTUTAKO TESTUETAN OINARRITUZ (2018-2020). (2018/006/072/04)

2. lotea. Euskara batuaren corpus estandarra egitea

Aipatutako klausula kontuan ez hartzeagatik, anormaltasun horren zenbatekoa edo ehunekoak kalkulatu gabe adjudikatu zen, inguruabar hori aintzat hartzean ekarriko lukeena.

*12. BFA-k obra-kontratu bat, hiru zerbitzu-obra eta esparru-akordio bat adjudikatzeko ezarritako gehieneko epea gainditu du, hurrenez hurren 1,1, 7,9 eta 1,9 milioi euroren truke adjudikatutakoak (ikusitako A.7.1. espedienteak 1, 4, 9, 10 eta 20).*

## HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO, AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPEN SAILAK ETA GIZARTE EKINTZA SAILAREN ALEGAZIOAK.

- HAUREN BAT BABESIK GABE DAGOEN FAMILIETAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA BEREZIA (2018/024/071/03)

Kontratua 2018ko uztailaren 3an adjudikatu zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakiaren bidez (gai-zerrendako 31. gaia zen).

SPKLTBren 161. artikulua (kontratuan aplikatzeko legea) hauxe ezartzen du:

2. Kontratua esleitzeko kontuan hartu behar diren irizpideak hainbat direnean, esleipena egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenen gutunazalak irekitzen direnetik kontatzen hasita, non eta administrazio-klausula zehatzen pleguan ez den beste epe bat ezarri.

4. Esleipena ez bada aipatutako epe horietan egiten, lizitatuak eskubidea izango dute atzera egin eta beren proposamena kentzeko.

Proposamen ekonomikoa ("B" gutun-azala) 2018ko maiatzaren 9an ireki zenez, saioaren aktan jasotzen den moduan, ez lirateke igaroko 161.2. artikuluan aipatzen diren bi hilabeteak.

Hala ere, "proposamenen irekia" lizitatuak lehen proposamena irekitzeko uneari buruzkoa bada (proposamen teknikoa, C gutun-azala), indarreko SPKLren 158.2. artikuluaekin bat, baina SPKLTBk interpretatzeko uzten duena, orduan bi hileko epea egun gutxi batzuegatik gainditu zen ("C" gutun-azala apirilaren 20an ireki zuten, beraz, ekainaren 20an amaituko litzateke).



Dena den, epe hori ez betetzea loteslea ez den irregulartasuntzat har daiteke, eta ez du eraginik dagokigun kasuan, ez duela kalterik eragiten onartutako lizitatzaille bakarrean -eta gerora, kontratuaren adjudikazioduna izan dena-. Horrela, ondorio bakarra da SPKLTBren 161. artikulua lizitatzaillei eskaintzak kentzeko ematen dien aukera. Hala ere, argi dago adjudikaziodunak ez zuela aukera hori baliatu.

Akats formal hori baliogabetzen ez duen irregulartasuntzat ere hartzen du Estatuko Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen doktrinak (142/2013 ebazpena, 29/16 txostena), eta oro har, Kontratu Baliabideen Administrazio Auzitegiak (Kontratu Baliabideen Administrazio Auzitegi Zentrala, 2016ko martxoaren 13ko ebazpena; Andaluziako Juntaren Kontratu Baliabideen Administrazio Auzitegia, 2015eko azaroaren 20ko ebazpenean...).

- 4 KONTSERBAZIO EREMUETAN ZORUAK LEHENERATZEA (2018/022/073/08)

Adjudikazio prozesuaren barruan, kontratuaren zuzendaritzak egindako txostenei dagokienez, III. eranskinean atxiki direnak, hauxe adierazten da:

- 2018ko irailaren 6an A gutun-azala ireki zen, eta Kontratazio Zerbitzuak baliabideen atxikipena berrikustea eskatu zuen.
  - Kontratuaren zuzendaritzak eskaera horri erantzun zion 2018ko irailaren 12an.
- 2018ko irailaren 14an C gutun-azala ireki zuen, eta kontratazio-zerbitzuak dagokion txostena eskatu zuen.
  - Kontratuaren zuzendaritzak 2018ko irailaren 14an bidali zuen txostena.
- 2018ko irailaren 28an B gutun-azala ireki zuen, eta kontratazio-zerbitzuak dagokion txostena eskatu zuen.
  - Kontratuaren zuzendaritzak 2018ko irailaren 28an bidali zuen txostena.

Horrez gain, Kontratazio Organoak kontratua adjudikatzeko epea ez betetzea, prozedura baliogabetzen duen akats bat ez dela uste da.

- ZELULOSA, ESKULARRUAK, HIGIENE MATERIALA ETA GARBIKETA PRODUKTUAK EROSTEA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN SAILETARAKO ETA ATXIKITAKO ERAKUNDEETARAKO, 2018. ETA 2019. URTEETAN. 4 lote. (2017/008/074/07)

- INGENIARITZAKO ZERBITZU INTEGRATUAK, KONTSERBAZIO ZERBITZURAKO LAGUNTZA TEKNIKORAKO, BIZKAIKO FORU ERREPIDE SAREAN JARDUKETA PUNTUALAK EGITEKO (2018/007/073/08)

- BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEEN FORU SAREKO BIDE GURUTZEETAKO SEMAFOROAK MANTENDU, HORNITU ETA JARTZEKO KONTRATU MISTOA

Kontratu horietan, SPKLTBren 161. artikuluan ezarritako gehieneko epea gainditzen da (SPKLren 158. artikulua, 2018/022/073/08 espedienterako), haren deialdia argitaratu zenean



indarrean zegoena, adjudikazioa egiteko, hala ere, prozedurazko irregulartasuna da, azken egintzaren deuseztagarritasuna ekartzen ez duena, hau da, ez du eraginik egintzaren baliozkotasunean, beraz, kontratazio-mahaiaren proposamena behin aurreikusitako epea igarota, baliozkoa da.

Halaxe dago xedaturik Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48. artikuluko hirugarren atalean: “Epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik izango da egintza deuseztagarri”. Hortaz, administrazio-egintzaren akats guztiek ez dakarte horien deusezetasuna edo deuseztagarritasuna.

Halaber, ofizioz hasitako prozeduretan, ebazteko gehieneko epea igarotzeagatik, Administrazioak zehapen-ahalmenak gauzatzen dituen prozedurei buruzkoa da, edo oro har, esku-hartze prozedurei buruzkoa, kontrako eraginak izan ditzaketanak. Horrenbestez, kontratazioetan ez da hori gertatzen, halako izaerakoak ez daudelako. Hor, kontratuaren adjudikazioren administrazio-beharra asetzea nagusitzen da.

Zerbitzu sustatzaileak adierazi du ezen foru errepideen sarea artatzeko zerbitzurako laguntza teknikoaren ingeniari-tza-zerbitzu integratuen kontratuaren lehiaketako C gutun-azalen irekiera 2018ko apirilaren 25ean izan zela. Gutun-azal horien balorazioari buruzko txostena maiatzaren 22an bidali du. B gutun-azalen irekiera ekainaren 13an izan zen. B gutun-azalen dokumentazioa posta elektronikoz bidali zen ekainaren 14an (mezua IV. eranskinean dago). Mezu hartan Kontratazioak eskatzen zuen egiaztatzeko ausarkeriaz egindako eskaintzarik zegoen, 85. artikulua aplikatuz, eta ez bazegoen, eskaintzak balioesteko eta lehiaketa nori adjudikatu proposatzeko. Adjudikazio-proposamenari buruzko txostena ekainaren 20an bidali zen (IV. eranskinean dago). Irailaren 14an lehiaketa adjudikatzen zuen foru dekretua eman zen, eta urriaren 16an kontratua formalizatu zen. Urriaren 19an hasiera-akta egin zen eta lanak hasi ziren. Nolanahi ere, uste dugu kontratazio-organoak kontratua ezarritako epealdiaren barruan ez adjudikatzeak ez duela prozedura baliogabetzen.

Semaforodun bidegurutzeak mantendu, hornitu eta instalatzeko kontratuaren lehiaketako C gutun-azalen irekiera 2018ko apirilaren 20an izan zen. Gutun-azal horien baloraziori buruzko txostena maiatzaren 22an bidali du. B gutun-azalen irekiera ekainaren 1ean izan zen. B gutun-azalen dokumentazioa posta elektronikoz bidali zen (mezua V. eranskinean dago). Mezu hartan Kontratazioak eskatzen zuen egiaztatzeko ausarkeriaz egindako eskaintzarik zegoen, 85. artikulua aplikatuz. Hori egiaztatzeko, eskaintzen bideragarritasuna aztertu behar izan zen, eta atazak formula bidez egiten den balioespenak iraun ohi duena baino luzeago jo zuen. Adjudikazio-proposamenari buruzko txostena ekainaren 19an bidali zen (V. eranskinean dago). Abuztuaren 6an lehiaketa adjudikatzen zuen foru agindua eman zen, eta irailaren 13an kontratua formalizatu zen. Irailaren 17an hasiera-akta sinatu zen eta lanak hasi ziren. Nolanahi ere, uste dugu kontratazio-organoak kontratua ezarritako epealdiaren barruan ez adjudikatzeak ez duela prozedura baliogabetzen.



13. *Ez da errespetatu kontratua sinatzeko adjudikazioa jakinarazten denetik igaro behar diren 15 egun balioduneko gutxieneko epea, BFAk 5,3 milioi euroren truke adjudikatutako kontratazio-errekurtso bereziarekin lotutako hiru zerbitzu-kontratuetan, eta Bizcaytik Fundazioak 1,4 milioiren truke adjudikatutako batean (ikusit A.7.1, 4, 5 eta 7. espedienteak, eta A.7.3, 25. espedienteak).*

## **HERRI ADMINISTRAZIOAREKIKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ETA GIZARTE EKINTZA SAILAREN ALEGAZIOAK**

- HAURREN BAT BABESIK GABE DAGOEN FAMILIETAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA BEREZIA (2018/024/071/03)

Kontratuak formalizatzeko epeak -"Familia esku-hartzeko programa espezializatua bezala, haurren babesgabetasun kasuetan bezala, 2018-2020"- errekurtso berezia jaso dezake kontratazioaren arloan, eta hori SPKLTBren 156.3. artikuluan arautzen da (kontratu horretan aplikatzekoa den legea, hainbat alditan berretsi den moduan). Honela dio manu horrek:

3. Kontratua, lege honen 40.1 artikulua araberako, kontratazio-arloko errekurtso berezia jartzeko modukoa bada, ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerari eta hautagaierari bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea. [...].

Epe hori errespetatu ez bada ere, adjudikatu (uztailaren 3) eta bi egunetara (uztailaren 5) egin baitzen, arau horren arau-haustea, SPKLTBren 37. artikulua araberako balio gabetzat hartzeko, Kontratu Baliabideen Administrazio Auzitegi Zentralaren iritziz (besteak beste 1158/2018, 33/2016 edo 777/2016 ebazpenak), baldintza hauek aldi berean betetzea eskatzen du: a) 156.3 b). artikulua epea ez errespetatzea, arrazoi horregatik lizitatzailerak errekurtsoa aurkezteko eskubidea galtzea, eta adjudikazioa lortzea eragotzi duen prozeduraren arau-hausteren bat gertatzea. Ildo beretik ematen du irizpena Aragoiko Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak, 2/2015 erabakian.

Garrantzitsua da esatea gure kasuan lizitatzailerari bakarrik zegoela, eta hori izan zela adjudikazioa lortu zuena. Beraz, lizitatzailerari gehiagorik ez dagoenez, goiz formalizatzeak ezin izan zituen kaltetu hirugarrenen eskubideak.

Eta lizitatzailerari bakarrik dagokionez, ez dira betetzen ez bigarren baldintza, ez hirugarrena. Hain zuzen ez du galdu errekurtsoa aurkezteko eskubiderik, izan ere, ez zuen egokitzen hartu baliatzea, eta noski, ez du arau-hausterik egin, adjudikazioa lortzea eragozteko modukorik, hain zuzen ere bere alde egin delako.

Eta lehen baldintza betetzen bada -epea ez betetzea-, interes publikoko arrazoi handiak zeudelako da. Horiek direla eta, Haur Zerbitzuak ezin zuen utzi gutxieneko denbora igarotzea, berandutze horrek bere babespean programako erabiltzaileak ziren adingabeen beharrek arreta ez eragiteko moduan. Eragingo luke 2018ko ekainaren 30erako ezarritako kontratuaren elkarrekiko adostasun ebazpenaren data kontuan hartuz, berehala hasiko ez balu.

Horrenbestez, epea ez zen bete interes publikoko arrazoiengatik, eta arau-hauste hori, baliogabetzen ez zuen irregulartasuna baino ez zen, aurkeztutako eta onartutako lizitatzaille bakarraren eskubideen gaineko aurkako eraginik ez zuelako.

- ETXEKO TRATU TXAR ETA SEXU ERASO EGOEREN ARRETA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA. (2018/045/071/09)

- BIZKAIERAREN CORPUS ESTANDARRA EGITEA, ERAKUNDEKO ADMINISTRAZIO HIZKUNTZAREN EREDU ERREFERENTZIALA EZARTZEKO, HIZTEGIAREN ETA GRAMATIKAREN IKUSPEGITIK, BFA-K SORTUTAKO TESTUETAN OINARRITUZ (2018-2020) (2018/031/072/04).

Erakunde lizitatzaille batek bakarrik eskaintza aurkeztu duten prozedurak dira, eta dagozkien kontratuen adjudikaziodunak izan direnak, xehetasun honen arabera:

KONTRATUA	LIZITATZAILEA/ ADJUDIKAZIODUNA
Haurrak babesik gabe dituzten familien baitan esku hartzeko programa berezia	Bilboko gizarte esku-hartzerako Bizgarri elkarte (IFZ: G-48514301)
Etxeko tratu txarreko eta sexu erasoaren egoeren arreta psikologikoko zerbitzua	Zutitu, S.L (IFZ B48675524)
Bizkaieraren corpus estandarra egitea, erakundeko administrazio-hizkuntzaren erreferentziako eredu zehazteko, hiztegiaren eta gramatikaren ikuspegitik, BFAk sortutako testuen babesetik.	Labayru Fundazioa (IFZ R94800525J)

Eta hori dagokionez, adierazi behar dugu espediente guztietan jasotzen dela kontratazioaren arloan, errekurso berezia jartzeari uko egiteko borondate argi eta zalantzarik gabea, aipatutako erakundearen nahikoa ahala duten ordezkariak aurkeztutako berariazko idazkiaren bidez adierazitakoa.

Hori guztia kontuan hartzen badugu Kode Zibilaren arabera, errekurso bat jartzea eskubide ukalezina dela, eta kasu honetan, uko egite horiek ez lukete ekarriko interesik edo ordena publikorik, ez eta hirugarrenak kalte ere. Are gehiago, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 94. artikulua, administrazio-prozedura amaitzeko modutzat hartzen du uko egitea.

Horrez gain, kasu horietan ez da errekurtsorik jarri lizitazio-iragarkien, agirien eta kontratuko agiriek aurka, kontratazioa arautzen duten baldintzak ezartzen dituztenak, edo ezta adjudikazio-prozeduran hartutako izapide egintzarik ere (Kontratazio Mahai Zentralaren aktak).



Dena den, ez dagokio pleguen edo kontratuaren beste edozein dokumentutan aurka egiterik, adjudikazio-egintzaren aurka errekurtsua jarriz (zeharkako errekurtsua).

Halaber, egia bada ere, SPKLTBren 42. artikulua eta Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 48. artikulua arabera, zeinak Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, oro har, errekurtsu berezia jar dezakete kontratazioaren arloan bidezko eskubideak edo interesak kaltetuta izan dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, edo errekurtsuaren xede diren erabakiak eragin dezaketena. Hala ere, egia ere bada, aurretik adierazitakoaren arabera, lizitatzailerik bakarria dagoenez lizitazio prozedura bakoitzean, eta errekurtsua aurkeztutako aurreko jarduketarik ez dagoenez, kontratazioaren arloko errekurtsu berezia aurkezteko arauzko pertsonak falta dira, adjudikazio-ebazpenaren aurkako kontratazioaren arloan, azaldutakoa kontuan hartuz, sindikatu-erakundeek errekurtsua aurkez dezaketena, beren ustez, horietatik ezin delako ondorioztatu kontratua gauzatzeko prozesuan enpresaburuak zerbitzua ematen parte hartzen duten langileen gizarte eta lan betebeharrak ez dituela betetzen.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar SPKLTBren 37 b) 1. artikuluan ezarritakoa, edo SPKLren 39.2 d). artikuluan adierazitakoa. Horien arabera, kontratazio-organoak kontratua egiteko epea ez badu kontuan hartzen, kontratu horiek ez dute eskubide osorik izango, arrazoi horregatik lizitatzailerik ez badu aukerarik izaten adjudikazio-prozeduraren egintzen aurkako errekurtsua aurkezteko. Eta puntu horretan, azpimarratu behar dugu kontratu bakoitzean erakunde lizitatzailerik batek bakarrik aurkeztu duela eskaintza, eta ordenamendu juridikoaren arabera, uko egin diola kontratazioaren arloko errekurtsu berezia aurkezteko eskubidea, hau da, ez du parte hartzen bestelako lizitatzailerik, hala badagokie, errekurtsuaren aintzat hartzearen onuradun izan badaitezke, eta beraz, kontratazioaren arloko errekurtsu berezia jartzeko kontratuen erakunde adjudikaziodun baino legezko pertsona gehiago ez badago.

Horregatik, amaitu behar dugu adierazten epea mantentzeak zentzua daukala eskubide bat baliatu behar denean; legeztatutako bakarrak uko egiten badio hura baliatzeari, eskubidea indargabetzen bada eta eraginkortasun printzipioaren arabera, dagozkion izapideak betetzen jarraitu behar bada, eta dagozkion kontratuak formalizatu.

## BISCAYTIK FUNDAZIOAREN ALEGAZIOA

Gutxieneko epea ez betetzea akatsa izan zen, egun baliodunen orde, egun naturalak zenbatzeagatik. Eskaintza bat bakarrik aurkeztu zen lizitaziora, beraz, ez zen kaltetu hirugarrenen adjudikazio-ebazpenaren aurka egiteko eskubidea.

Lizitazio-iragarkia argitaratu zen egunean (2018ko otsailaren 16an), kontratua Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011. Legegintzako Errege Dekretuaren mende dago, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legearen 1. atalean, lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

SPKLTBren 37. artikulua deuseztasun-kasu gisa ezartzen zuen honako hau: b) 156.3 artikuluan kontratua formalizatzeko aurreikusitako hamabost egun balioduneko epea bete ez bada; betiere, bi baldintza hauek betetzen badira:





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

1. Arrazoi horrengatik lizitatzailerak 40. artikuluan eta hurrengoetan araututako errekurtsua aurkezteko aukerarik gabe gelditu izana, eta

2. gainera, kontratuak esleitzeko prozedura arautzen duen araren bat urratu izana, eta horrek esleipena lortzea eragotzi izana.

Dagokigun kasuan, ez zioten kendu lizitatzailerari errekurtsu berezia aurkezteko aukera, adjudikazioduna izan zen eskaintza bat bakarrik aurkeztu zuelako, eta ez dago adjudikazio-prozeduraren bestelako arau-hausterik, beraz, ez zen gertatu SPKLTBk ezarritako deuseztasun-kausa.

*14. Interbiak Bizkaia, S.A.M.P.k 4,5 milioi euroren truke adjudikatutako obra-kontratua formalizatzea adjudikazioa jakinarazi eta 6 hiletara gutxi gorabehera egin da, gehieneko epea 15 egun baliodunekoa zenean (ikusitako A.7.3, 12. espediente).*

## INTERBIAK-EN ALEGAZIOA

Mamarigako Tunelak egokitzeko proiektuaren obrak.

Kontratu hau atzerapenaren sinatu zen, behin adjudikatuta, Bilboko Portuko Agintaritzak zenbait salbuespen bidali zizkiolako adjudikatutako proiektuan Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari.

Jakin badakigunez, Bilboko Portua goi-mailako eragile ekonomikoa da lurraldean, eta Mamarigako tunelak egokitzeko proiektuak portuaren jardueran eragin lezake. Proiektua idatzi zen fasean oraindik helarazi ez ziren gaiak proposatu ziren. Salbuespen horiek aztertzeak, kontratuaren sinatzea atzeratzea ekarri zuen, eta proposatutako gogoetei erantzunez, eta behin lanak hasita, azkenean gauzatu den proiektu aldatua onartu zuten.

Merkataritza-ganberak eta Bilboko Portuko Agintaritzako lehendakariak jasotako jakinarazpenak erantsi ditugu (VI. eranskina)

*15. Azpiegiturak, S.A.M.P.-k Uribitarteko eguneko zentroa ustiatzeko eta mantentzeko formalizatutako kontratuan jasotzen den gauzatzeko epea, hots, luza daitezkeen 6 hilabete, elkarrekin adostutako aldirian, gehienez, 6 urteko epea izanda, ez dator bat Baldintzen agirian eta lizitazioaren iragarkian jasotakoarekin: luza daitezkeen 4 urte, 6 urte arte (ikusitako A.7.3., 5. espediente).*

## AZPIEGITURAK, S.A.M.P.-REN ALEGAZIOA

Desberdintasun bat dago zerbitzua emateko finkatutako epearen, Azpiegiturak-ek formalizatutako kontratuan, eta baldintzen agirian eta lizitazioaren iragarkian ezarritakoaren artean. Lehenengoak, laugarren klausulak hau jasotzen du: "Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako Isozaki Atea eguneko zentroaren ustiatzea eta mantentzea, Bilbon, Bizkaian, sei hilekoa izango da hasiera batean". Hala ere, luzapenak hitzartu ahalko dira, betiere haien





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

zenbaketa osoa eta hasierako epea barne hartuta, multzo osoa baino handiagoa ez bada. Gehienez, 6 urte izan ahalko dira, jarduera hasten den egunetik zenbatzen hasita".

Aldaketa horrek, kontratuan nahiz agirietan ezarritakoa irakurri ondoren ondoriozta daitekeen moduan, ez du inola ere eragiten zerbitzua emateko ezarritako gehieneko aldian, luzapenaren aldiak barne. Kontratuak, gehienez, luzapen hori izango du, eta kasu guztietan errespetatu beharko da, lizitazioan norgehiagoka bermatzeko helburuarekin.

Nolanahi ere, kontratuaren eta baldintzen pleguen artean desadostasuna badago, azken horiek gailenduko dira, beraz, agirietan eta deialdiaren iragarkian jasotzen den aldia da zerbitzua ematean nagusituko dena. Hori da, hain zuzen, adjudikaziodunari jakinarazi zaiona. Aurretik adierazi dugun moduan, ezingo da aldatu kontratu honetarako ezarritako gehieneko sei (6) urteko epea.

*16. BFAk 773.829 euroren truke adjudikatutako obra-kontratu batean zuinketa egiaztatzeko aktaren harpidetza gainditu du (ikusi A.7.1., 2. espedienteak).*

#### **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO, AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPEN SAILAK EGINDAKO ALEGAZIOAK.**

- 3 KONTSERBAZIO-EREMUTAKO ZORUAK BIRSORTZEKO PROIEKTUA. BIGARREN JARDUKETA (2018/028/073/08)

Akats horri erantzuteko, kontratuaren sustatzaileak zera jakinarazi du: "Atzerapen bat gertatu zen zuinketa egiaztatzeko aktaren harpidetzan, obretarako beharrezkoa zen segurtasun eta osasun planaren izapidetzean atzerapenak ere gertatu zirelako, baina azkenean, Akta, kontratistak erreserbatu gabe egin zen, eta obra gauzatzeko epea egun horretan bertan hasi zen".

Hala ere, prozedurazko irregulartasun bat da, azken egintzaren deuseztagarritasuna ez dakarrena, hau da, ez du eraginik egintzaren baliozkotasunean.

Halaxe dago xedaturik Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48. artikuluko hirugarren atalean: "Epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik izango da egintza deuseztagarri". Hortaz, administrazio-egintzaren akats guztiek ez dakarte horien deuseztagarritasuna edo deuseztagarritasuna.

*17. Ez da onartu BFAk 1,8 milioi euroren truke adjudikatutako bi obra-kontraturen lan programa (ikusi A.7.1, 1. eta 2. espedienteak).*

#### **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO, AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPEN SAILAK EGINDAKO ALEGAZIOAK.**

- 4 KONTSERBAZIO EREMUETAN ZORUAK LEHENERATZEA (2018/022/073/08)



- 3 KONTSERBAZIO-EREMUTAKO ZORUAK BIRSORTZEKO PROIEKTUA. BIGARREN JARDUKETA (2018/028/073/08)

Akats horri erantzuteko, kontratuaren sustatzaileak zera jakinarazi du: "Ez zen izapidetu Lan programa. Hala ere, bazegoen eta haren arabera gauzatu zen obra".

Hori horrela, egia bada ere 1098/2001 Errege Dekretuaren, urriaren 12koaren, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araubide Orokorra onetsi zuenaren, 144. Artikuluaren 1. idatz-zatian aurreikusitako izapide formalak jarraitu ez direla (kontratistak hogeita hamar eguneko gehieneko epean lan-programa aurkeztea, kontratuaren gauzatzetik eta kontratazio-organoak onartzen duenetik hasita), 144. artikulua edukia betetzen da.

Geroago lizitatzen diren eraikuntza-proiektuek, haren dokumentazioaren barruan, 4. eranskinean, obra-plana barne hartzen dutelako.

Era berean, aipatu beharra dago kontratu hori arautzen duen Administrazio Klausula Berezien Agiriaren 1.1 idatz-zatiak honako hau ezartzen duela: kontratu izaera izango dute "lizitazio-xede diren obraren proiektuko dokumentuek (Memoria izan ezik, obra-unitateen parte diren oinarritzko edo funtsezko materialen deskribapena ez den guztiari dagokionez), lan-programak eta prezioen taulek".

Azaldutakoa dela eta, formalki 144. artikuluan ezarritako prozedura jarraitu ez bada ere, kontatu horrek badu dagokion Lan Programa, kontratista lotzen duena.

Lan-programak erantsi dira. (VII. eranskina)

